

## XEDAPEN OROKORRAK

### INGURUMEN ETA LURRALDE POLITIKA SAILA

## 3559

*121/2016 DEKRETUA, uztailaren 27koa, Donostiako Eremu Funtzionalaren (Donostialdea-Bidasoa Beherea) Lurralde Plan Partziala behin betiko onartzen duena.*

Euskal Autonomia Erkidegoko Lurralde Antolamenduaren Gidalerroak –Euskal Herriko Lurralde Antolakuntzari buruzko maiatzaren 31ko 4/1990 Legearen babespean idatzi eta izapidetuak– behin betiko onartu ziren otsailaren 11ko 28/1997 Dekretuaren bidez (otsailaren 12ko Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkarian argitaratua). Gidalerro horietan, lurralde-plan partzialak idazteko esparruak zehazten dira, eta haien artean dago Donostiako eremu funtzionala (Donostialdea-Bidasoa Beherea).

Euskal Herriko Lurralde Antolakuntzari buruzko maiatzaren 31ko 4/1990 Legeak 2. eta 11. artikuluetan xedatutakoaren arabera, besteak beste lurralde-plan partzialen bidez gauzatuko da Euskal Autonomia Erkidegoko lurralde-antolamendua. Plan horietan, Euskal Autonomia Erkidegoko Lurralde Antolamenduaren Gidalerroetako irizpide zehatzak adieraziko dira eremu funtzional bakoitzerako. Horren haritik, Gidalerroen 22. kapituluko 7. zenbakian –aplikazio-arauei buruzkoan– adierazten da oso garrantzitsua dela lurralde-plan partzialak egitea, horrela, hirigintza- eta lurralde-irizpide osagarriak gehitzeko aipatutako gidalerroetakoei. Izan ere, irizpide osagarri horiei esker, udal-esparruko planen garapen doia lortzeko, eta lurralde-koherentzia handiagoa bermatzen da lurralde-plan sektorialak egiterakoan.

Lurralde-plan partzial hau Euskal Herriko Lurralde Antolakuntzari buruzko maiatzaren 31ko 4/1990 Legearen 13. artikuluan jasotakoaren arabera garatutako lantze- eta izapidetze-prozesu luze baten emaitza da.

Planaren edukiak erantzuna ematen dio Euskal Herriko Lurralde Antolakuntzari buruzko maiatzaren 31ko 4/1990 Legearen 12. artikuluari; hots, lurralde-plan partzialek jaso behar dituzten zehaztapenen ingurukoari. Planak zenbait neurri, arau eta gidalerro ezartzen ditu, nagusiki eremu funtzionalaren antolamendu integrala lortzeko.

Lurralde-plan partzial honek udal-erri hauek hartzen ditu: Andoain, Astigarraga, Donostia, Errenteria, Hernani, Hondarribia, Irun, Lasarte-Oria, Lezo, Oiartzun, Pasaia, Urnieta eta Usurbil. Planaren helburu nagusia da erreferentzia izango den lurralde-eredu bat zehaztea, eredu osatzen duten elementu sektorialen arteko antolamendu- eta koordinazio-arau eta -jarraibide orokorren bidez. Horrela, hamasei urteko denbora-tartean eremu funtzionalaren lurralde-garapena orekatua eta iraunkorra izango dela bermatuko da.

Planean jasotako lurralde-ereduaren oinarrietako bat da ingurune naturala babestea eta nabarmentzea, ingurune fisikoa antolatuta. Ingurunea antolatzeko oinarritzat hartu diren lurralde-kategoria handiak araututa, udal-plangintzaren garapena bideratuko duten irizpide, printzipio eta jarraibide orokorrak zehazten dira; edozelan ere, Planaren antolamendu-ereduak jasoko ditu indarreko legeriaren arabera gune babestuetan ezarritako arauak. Osagarri gisa, Planak beste figura batzuk ere zehazten ditu, besteak beste, hiriarteko eta hiri inguruko landa-parkeak, eta nekazaritza eta abelazkuntzako eremu estrategikoak. Halako parkeetan, nagusiki paisaia eta ingurunea zaindu behar dira; eta eremu estrategikoetan, berriz, lehen sektoreko jarduerak sustatu.

Ekipamenduei eta espazio libreei dagokienez, Planaren helburu nagusia da lehendik dagoen sarea finkatzea eta indartzea; horrela, bultzatu egingo dira hiri-inguruneko ekipamenduak (bereziki, biziberritze- edo birmoldaketa-prozesuak bizi dituzten inguruak), ingurune fisikoari loturikoak (antolakuntza-figuren bidez; esaterako, hiri inguruko parkeena), edo izaera estrategikoko inguruetarako ekipamendu berriei zuzenduriko erreserbak.

Mugikortasun jasangarriaren aginduei jarraikiz, garraiobideak (oinezkoak eta bizikletak, trenbide-sarea, eta portu- eta aireportu-azpiegiturak) era integratuan barnean hartzen dituen planteamendua egiten du, arloko administrazioak hiri- eta lurralde-garapenarekin koordinatzeko proposamena eginez.

Etxebizitzari dagokionez, Planak egungo hiri-ehunen aprobetxamendua lehenesten du, hirigintzako biziberritze- eta birmoldaketa-prozesuak sustatuz lurzoru berriak okupatu ordez. Ere funtzionaleko udalerrietan etorkizunean zer etxebizitza-behar egon daitezkeen aurreikusteko, Planak 4/2016 Dekretuan ezarritako irizpideak darabiltza (4/2016 Dekretua, urtarrilaren 19koa, Euskal Autonomia Erkidegoko Lurralde Antolamenduaren Gidalerroak behin betiko onesten dituen Dekretua aldatzen duena, bizitegi-kuantifikazioari dagokionez).

Jarduera ekonomikoei dagokienez, Jarduera Ekonomikoetarako eta Merkataritza Ekipamenduetarako Lurzorua Sortzeko Lurraldearen Arloko Planak udalerriz ezberdinetarako zehaztu zuen kategorizazioa bere egiten du Planak; biziberritzea funtsezko garapen-erreminta izango duten inguruak eta jarduera ekonomiko edo logistikoetarako estrategia-polo berriak garatu ahal izateko lehenetsutako kokapen direnak xedatzen ditu ere.

«Izaera estrategikoa duten inguruak» zehazten ditu Planak: etorkizun hurbilean azpiegitura-eraldatze eta hiri-berrantolaketako prozesu handienak hartuko dituzten hiri-eszenatokiak izatea da beren arteko ezaugarri komuna. Planak inguru horiek antolatzeko oinarri izango diren irizpideak eta jarraibideak zehazten ditu; izan ere, inguru horiek lurralde-euskarria dira eremu funtzional osorako (baita Gipuzkoa osorako ere) garrantzitsuak diren ekipamendu edo azpiegitura handiak jartzeko, edo inguru horietan eraldaketa-prozesu garrantzitsuak gertatzen dira, eta prozesu horiei udalerriaz gaindiko eta sektorearteko ikuspegitik egin behar zaie aurre.

Lurralde Antolamenduaren Gidalerroek zehaztutako lurralde-esparruan, Planak ahalegina ere egiten du Euskal Autonomia Erkidegoko Administrazio Orokorreko sailek eta Gipuzkoako Foru Aldundiko departamentuek sustatutako lurralde-plan sektorialak integartzeko. Era berean, alderdi hauek ere hartu dira kontuan:

- Euskal Autonomia Erkidegoko Nekazaritza eta Basozaintzako Lurralde Plan Sektoriala.
- Euskal Autonomia Erkidegoko Ibaiak eta Errekak Antolatzeko Lurraldearen Arloko Plana.
- Euskal Autonomia Erkidegoko Energia Eolikoaren Lurralde Plan Sektoriala.
- Euskal Autonomia Erkidegoko eremuan Trenbide Sarearen Lurraldearen Antolamendurako Arloko Plana.
- Jarduera Ekonomikoetarako eta Merkataritza Ekipamenduetarako Lurzoru Publikoa Sortzeko Lurraldearen Arloko Plana.
- Hezeguneen Lurraldearen Arloko Plana.
- Itsasertza Babestu eta Antolatzeko Lurralde Plan Sektoriala.
- Gipuzkoako Hiri Hondakinak Kudeatzeko Azpiegituren Lurraldearen Arloko Plana.

– Gipuzkoako Bizikleta Bideen Lurraldearen Arloko Plana.

Lurralde Plan Partziala dokumentu hauek osatzen dute, Euskal Herriko Lurralde Antolakuntzari buruzko maiatzaren 31ko 4/1990 Legearen 12.3 artikuluan ezarritakoa betez:

- a) Azterlanak eta informazio-planoak Memoria.
- b) Antolamendu-planoak.
- c) Antolamendu-arauak.
- d) Gauzatze-programa eta azterlan ekonomiko eta finantzarioa.
- e) Udal Plangintzan dituen eraginak.
- f) Ingurumen-inpaktuaren baterako ebaluazio-azterlana.

Antolamendu-arauek Planean arautzat jotzen diren xedapen eta proposamen guztiak biltzen dituzte, eta dekretu honen I. eranskinean jaso dira, argitara daitezen, Euskal Herriko Lurralde Antolakuntzari buruzko maiatzaren 31ko 4/1990 Legearen 13.10 artikuluan ezartzen den bezala, nahiz eta Lurralde Plan Partzial osoa Sailaren webgunean jarriko den jendaurrean, guztiek izan dezaten haren berri.

Era berean, planarekin batera doa ingurumen-inpaktuaren baterako ebaluazio-azterlana ere. Ingurumen-araudian xedatutakoa betetzeko (9/2006 Legea, apirilaren 28koa, zenbait plan eta programak ingurumenean dituzten ondorioen ebaluazioaren gainekoa; 3/1998 Lege Orokorra, Euskal Autonomia Erkidegoko ingurumena babesten duena, eta haren erregelamenduzko garapena den uztailaren 22ko 183/2003 Dekretua, ingurumen-inpaktuaren baterako ebaluazio-prozedura arautzen duena), ingurumen-alderdiak Planean txertatzeaz hartutako erabakiaren gaineko aginduzko adierazpena gehitu zaio dekretu honi II. eranskin gisa.

Ingurumen eta Lurralde Politika Sailaren eskumena da plan honen behin betiko onarpena Gobernu Kontseilura eramatea, Euskal Herriko Lurralde Antolakuntzari buruzko maiatzaren 31ko 4/1990 Legearen 13.9 artikuluan xedatutakoa dela bide.

Gobernu Kontseiluaren eskumena da Donostiako Eremu Funtzionalaren (Donostialdea-Bidasoa Beherea) Lurralde Plan Partziala behin betiko onartzea, Euskal Herriko Lurralde Antolakuntzari buruzko maiatzaren 31ko 4/1990 Legearen 13.10 artikuluan ezarritakoaren arabera.

Beraz, Ingurumen eta Lurralde Politikako sailburuaren proposamenez, eta Jaurlaritzaren Kontseiluak 2016ko uztailaren 27an egindako bileran gaia aztertu eta onartu ondoren, hauxe

#### XEDATZEN DUT:

Artikulu bakarra.– 1.– Behin betiko onartzea Donostiako Eremu Funtzionalaren (Donostialdea-Bidasoa Beherea) Lurralde Plan Partziala. Haren antolamendu-arauak dekretu honi gehitu zaizkio I. eranskin gisa.

2.– Dekretu honen II. eranskinean, ingurumen-alderdiak Lurralde Plan Partzialean sartzearen inguruan hartutako erabakiaren gaineko adierazpena jaso da.

3.– Orobat, III. eranskinean, lurralde-plan partzial honen kartografia argitaratu da.

4.– Ingurumen eta Lurralde Politika Sailaren egoitza elektronikoan daude Euskal Herriko Lurralde Antolakuntzari buruzko maiatzaren 31ko 4/1990 Legearen 12.3 artikuluan aipatzen diren Lurralde Plan Partzialarekin erlazionatutako agiri guztiak.

## LEHENENGO XEDAPEN IRAGANKORRA

Plan hau indarrean jartzeko unean hasieran onartu ez diren lurralde-plan sektorialak berrikusteko eta aldatzeko dokumentuak egokitu egin beharko dira plan honetan jasotako zehaztapenetara, Donostiako eremu funtzionalari eragiten dioten alderdi guztietan.

Edonola ere, lurralde-plan partzial hau indarrean jartzean indarrean dauden lurralde-plan sektorialak egokitu egin beharko dira plan honetan xedatutakora, Euskal Herriko Lurralde Antolakuntzari buruzko maiatzaren 31ko 4/1990 Legearen laugarren xedapen gehigarrian aurrez ikusitakoa salbuetsita.

## BIGARREN XEDAPEN IRAGANKORRA

Donostiako eremu funtzionalean dauden udalerrietako hirigintza-dokumentuak, baldin eta plan orokorrak eta arau subsidiarioak egiteko, berrikusteko edo aldatzeko prozesuetan badaude eta plan hau indarrean jartzeko unean hasieran onartu ez badira, plan honetan jasotako zehaztapenetara egokitu beharko dira.

Edonola ere, indarrean dagoen udal-esparruko antolamendu orokorra lurralde-plan partzial honetan ezarritakoaren arabera egokitu beharko da, hura indarrean jarri eta zortzi urteko epean.

## AZKEN XEDAPENA

Dekretu hau Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkarian argitaratu eta hilabeteko epean jarriko da indarrean.

Vitoria-Gasteizen, 2016ko uztailaren 27an.

Lehendakaria,  
IÑIGO URKULLU RENTERIA.

Ingurumen eta Lurralde Politikako sailburua,  
ANA ISABEL OREGI BASTARRIKA.

**I. ERANSKINA, DONOSTIAKO (DONOSTIALDEA-BIDASOA BEHEREA) LURRALDE  
PLAN PARTZIALA BEHIN BETIKO ONARTZEN DUEN UZTAILAREN 27KO  
121/2016 DEKRETUARENA**

**ANTOLAMENDU-ARAUAK**

**I. KAPITULUA  
XEDAPEN OROKORRAK**

**1. artikulua.– Xedea.**

Donostiako (Donostialdea-Bidasoa Beherea) Eremu Funtzionalaren Lurralde Plan Partzialak eremu funtzional hori antolatzea du xede, eta, horretarako, Euskal Autonomia Erkidegoko Lurralde Antolamenduaren Gidalerroek ezarritako zehaztapenak garatuko ditu, betiere Euskal Herriko Lurralde Antolakuntzari buruzko maiatzaren 31ko 4/1990 Legearen 1. artikuluan eta hurrengoetan ezarritakoari jarraituz –Eusko Jaurlaritzaren otsailaren 11ko 28/1997 Dekretuak onartu zituen Lurralde Antolamenduaren Gidalerroak–.

**2. artikulua.– Aplikazio-esparrua.**

Eremu funtzionalaren osotasunean aplikatuko da plan hau. Horrenbestez, udalerrri hauek osatuko dute aplikazio-esparrua: Andoain, Astigarraga, Donostia, Errearteria, Hernani, Hondarribia, Irun, Lasarte-Oria, Lezo, Oiartzun, Pasaia, Urnieta eta Usurbil.

**3. artikulua.– Lurralde Plan Partzialaren dokumentuak eta haien irizpide arauemailea.**

1.- Lurralde Plan Partzial hau dokumentu hauez osaturik dago:

- A) Azterlanak eta informazio-planoak. Memoria.
- B) Antolamendu-planoak.
- C) Antolamendu-arauak.
- D) Gauzatze-programa eta azterlan ekonomiko eta finantzarioa.
- E) Udal-plangintzan dituen eraginak.
- F) Ingurumen-inpaktuaren gaineko baterako ebaluazio-azterlana.

2.- C. Antolamendu-arauak dokumentuko eta B. Antolamendu-planoak dokumentuko zehaztapenek dute berez izaera arauemaile hori.

3.- Kontraesanik balego, «C. Antolamendu-arauak» eta «B. Antolamendu-planoak» dokumentuen zehaztapenak nagusituko dira artikuluko honen 1. puntuan adierazitako gainerako dokumentuetan jasotakoarekiko.

4.- Lurralde Plan Partzialean bildutako zehaztapenak interpretatzea Euskal Herriko Lurraldearen Antolamendurako Batzordeari dagokio.

#### 4. artikulua.– Legeria sektoriala.

1.- Lurralde Plan Partziala aplikatu eta garatzeko tresnek errespetatu egin beharko dute legerian eta indarrean dagoen araudi sektorialean ezarritakoa.

2.- Zehazki, organo sektorial eskudunek berariaz eskatuta, itsasertzaren eta itsasoaren, portuen eta abiazio zibilaren egonkortasunari dagokionez aplikatzekoa den araudi hau esplizitatzen da:

a) Itsasertza.

Zehazki, besteak beste, Kosta Legean itsaso eta lehorraren arteko jabari publikokoak eta haren babes-zortasunekoak diren lurren gainean ezarritako mugak beteko dira. Ildo horretan, baldintza hauek beteko dira:

1.- Itsaso eta lehorraren arteko jabari publikoaren erabilera, uztailaren 28ko 22/1988 Kosta Legearen III. tituluan eta hura aldatzeko maiatzaren 29ko 2/2013 Legean zehaztutakoaren arabera arautuko da.

2.- Itsaso eta lehorraren arteko jabari publikoko lurretan gauzatu nahi diren jarduketetarako, dagokion titulu gaitzailea beharko da.

3.- Babes-zortasuneko zonako erabilerek Kosta Legean xedatutakoa beteko dute. Ildo horretan, zona horretan baimendutako erabilerek Autonomia Erkidegoko organo eskudunaren baimena izan beharko dute, urriaren 10eko 876/2014 Errege Dekretuan (zeinagatik Kostaldeko Erregelamendu Orokorra onartu den) zehaztutakoaren arabera.

4.- Bermatu beharko da, hurrenez hurren, Kosta Legearen 27. eta 28. artikuluetan ezarritako itsasorako bide- eta sarbide-zortasunak errespetatuko direla eta 30. artikuluan eragin-zonarako adierazitako baldintzak beteko direla.

5.- Kosta Legea indarrean jartzean jabari publikoko edo zortasuneko zonan dauden obrak eta instalazioak Kosta Legearen laugarren xedapen iragankorrean zehaztutakoaren arabera arautuko dira.

6.- Saneamendu-sareko instalazioek Kosta Legearen 44.6 artikuluan eta haren Erregelamenduarekin bat datozenetan adierazitako baldintzak bete beharko dituzte.

4. planoan (Uraren ziklo integrala eta zerbitzu-azpiegiturak) eta 6. planoan (Etxebizitza-parkearen eta jarduera ekonomikoetarako lurzorua antolamendua), itsaso eta lehorraren arteko jabari publikoaren eta haren babes-zortasunaren mugaketa-lerroak grafiatzen dira.

## b) Abiazio zibila.

1.- Lurralde Plan Partzialaren edukia garatzen duten eta Donostiako aireportuaren zerbitzugunea, aireko nabigazioko instalazioak edo ezarritako edo ezarri beharreko zortasun aeronautikoen mende dauden inguruko espazioak eraginpean hartzen dituzten hirigintza- edo lurralde-planak, hasieran onartu aurretik, Abiazio Zibileko Zuzendaritza Nagusiari igorri beharko zaizkio, behar izanez gero segurtasun-azterketa aeronautikoarekin batera, interes orokorreko aireportuen eta haien zerbitzu-eremuaren antolaketari buruzko abenduaren 4ko 2591/1998 Errege Dekretuaren bigarren xedapen gehigarrian adierazitakoaren arabeko txostena eman dezan (zerga-, administrazio- eta gizarte-mailako neurrien gaineko abenduaren 30eko 13/1996 Legearen 166. artikuluan xedatutakoa betetzeko). Izan ere, formulatutako oharrak onartzen ez dituzten planak ezin izango dira behin betiko onartu.

2.- Eragin akustikoei dagokienez, lurralde-plan partzial honetan garatzen diren hirigintza- eta lurralde-planek, Aireportua Bideratzeko Planean jasotako zarata-arrastoen eraginpeko esparruetan baldin badaude, ezin izango dute hirigintza-aldaketarik proposatu, haiek dakartenean indarrean dagoen plangintzarekiko bizitegiko, hezkuntza-zuzkidurako edo osasungintzako erabileretarako eragindako pertsona kopurua areagotzea. Alderdi horrek egiaztatuta geratu beharko du Abiazio Zibileko Zuzendaritza Nagusiaren aurrean.

Hondarribiko udalerraren zarata-arrastoen eraginpeko hiri-lurzoruko esparruetan, ez dira bateragarriak izango egun indarrean dagoen «Hondarribiko Udal Plangintzako Arau Subsidiarioak» dokumentuarekiko erabilera horietarako eragindako pertsona kopurua areagotzea ekarriko duten hirigintza-aldaketak (dokumentu hori 1997/09/30ean jarri zen indarrean).

3.- Donostiako aireportuaren zortasun aeronautikoak mugatzen dituzten gainazalek, Donostiako Eremu Funtzionalaren (Donostialdea-Bidasoa Beherea) Lurralde Plan Partzialaren antolamendu-esparruan eragina badute, edozein eraikinek gainditu ezin dituen itsas mailarekiko altuerak zehazten dituzte (elementu guztiak barne direla; adibidez, antenak, tximistorratzak, tximiniak, aire girotuko tresneria, igogailu-kaxak, kartelak, dekorazio-erremateak, etab.), baita lurraren edo objektu finko baten aldaketak (zutoinak, antenak, haize-sorgailuak –haien palak barne direla–, kartelak, etab.) eta bideen edo trenbideen galiboaren aldaketak ere. Salbuespen gisa, zortasun aeronautikoak urratzea baimenduko da Estatuko Aire Segurtasunaren Agentziaren (AES) iritzian egiaztatuta geratzen denean segurtasuna arriskuan ez dagoenean eta aireontzien eragiketen erregulartasunari nabarmen eragiten ez zaionean, apirilaren 26ko 297/2013 Errege Dekretuak aldatutako, zortasun aeronautikoen otsailaren 24ko 584/1972 Dekretuan jasotako salbuespenen arabera.

4.- Donostiako Eremu Funtzionalaren (Donostialdea-Bidasoa Beherea) Lurralde Plan Partzialaren babespean edozein eraikuntza, instalazio (zutoinak, antenak, haize-sorgailuak –haien palak barne direla–, kartelak, etab.), eraikuntzarako beharrezko bitarteko (eraikuntzako garabiak eta antzekoak barne direla) edo landaketa gauzatzeko, ondoren hirigintza- edo lurralde-tresnarik behar ez badu ere, Donostiako aireportuaren zortasun aeronautikoen eraginpeko lurretan kokatzen bada, aurretiaz, Estatuko Aire Segurtasunaren Agentziaren (AESA) aldeko erabakia beharko du, apirilaren 26ko 297/2013 Errege Dekretuak aldatutako, zortasun aeronautikoen otsailaren 24ko 584/1972 Dekretuko 30. eta 31. artikuluen arabera.

Era berean, zortasun aeronautikoen pean ez dauden zonetan, edozein eraikuntza edo egitura gauzatzeko eta hura eraikitze beharrezko bitartekoak instalatzeko (lurraren gainetik edo, ur jurisdikzionaletan, itsas mailaren gainetik 100 metro baino gehiagora altxatuz gero), beharrezkoa izango da Estatuko Aire Segurtasunaren Agentziaren (AESA) erabakia aireko eragiketen segurtasunean horrek duen eraginari dagokionez.

5.- Zortasun aeronautikoen ondorio diren mugek aukera ematen ez badute Plan Partziala garatuko duten hirigintza-planek finkatutako aprobetxamendu guztiak gauzatzeko, horrek ez du ekarriko Sustapen Ministerioak, aireportuaren kudeatzaileak edo aireko nabigazioko zerbitzugileak kalte-ordainik ordaindu beharra. Xedapen hori Lurralde Planaren araudian jaso beharko da.


6.- Plangintzan jasotako jarduketek edo garatu nahi diren eraikuntzek Donostiako aireportuko zortasun aeronautikoak urratzen badituzte (betiere) eta, zehazki, lurak adierazitako azalerak urratzen ditueneko edo azalera horretatik gertu dagoeneko esparruetan edozein motatako jarduketa egin nahi bada (osorik edo zati batean instalazio erradioelektriko aeronautikoetan dauden esparruak barne), beharrezkotzat hartzen da segurtasuneko azterketa aeronautiko bat egitea. Hark egiaztatu behar du, aeronautikako operazio-segurtasunaren arloan eskumena duen agintaritzaren iritzian, aireontzien eragiketen erregulartasuna nabarmen arriskuan jartzen ez duela. Azterketa hori eskumena duen teknikari batek sinatu beharko du, eta dagokion elkargo profesionalaren oniritzia izan.

7.- Edozein emisore erradioelektrikok edo gailuk instalazio erradioelektriko aeronautikoen funtzionamendu normalean erradiazio elektromagnetiko asaldatzaileak sorraraz baditzaite (instalazio horiek mugatutako zortasunen zonetan), beharrezkoa izango da bidezko baimena lortzea, zortasun aeronautikoei buruzko otsailaren 24ko 584/1972 Dekretuaren 16. artikuluan jasotakoaren arabera.


Lurralde Plan Partzial hau prestatzeko Abiazio Zibileko Zuzendaritza Nagusiak helarazitako txostenean emandako eragin akustikoei eta zortasun aeronautikoei buruzko dokumentazio grafikoa, araudi honen osagarri gisa, jarraian dago jasota.



2016ko abuztuaren 12a, ostirala




Aireportuaren eragin akustikoak hiriko eta hiri inguruko multzoetan



Aireportuaren eragin akustikoak litezkeen garapenetan





Eragiketa-zortasunak

## c) Portuak

- 1.- Pasaiaiko portua Estatuaren interes orokorreko portua da eta, berori mugatu eta antolatzeko, beharrezkoa da irailaren 5eko 2/2011 Legegintzako Errege Dekretuan ezarritako tresnetara jotzea. Horren bidez, Estatuko Portuei eta Merkataritzako Nabigazioari buruzko Legearen Testu Bategina (EPMNLTB) onartzen da; hau da, portu-espazioen eta -erabileren mugaketa eta zerbitzu-zona antolatzeko plan berezia.
- 2.- Donostiako Eremu Funtzionalaren lurralde-plan partzial honek Pasaiaiko portuko zerbitzu-zona osoa portu-sistema orokortzat kalifikatu behar du; eta, berori garatzeko, ezin da ezarri EPMNLTBak araututakoez bestelako tresnarik, ezta portu-ustiapenean eragina izan dezakeen zehaztapen loteslerik ere.

**5. artikulua.– Planaren denbora horizontea aldatzea eta berraztertzea.**

- 1.- Lurralde Plan Partzialaren edukia aldatu ahal izango da, bai plana osorik berraztertzearen bidez, bai berau osatzen duen elementuren baten edo batzuen aldaketaren bitartez.
- 2.- Lurralde Plan Partzialaren aldaketek tresna hori orokorrean edo funtsezko alderdietan berraztertzea eragiten ez badute, irailaren 9ko 206/2003 Dekretuan aurreikusten den prozeduraren bitartez egingo dira aldaketak izan ere, Lurralde Antolamenduaren Gidalerroen, Lurralde Plan Partzialaren edo Lurralde Plan Sektorialen funtsezkoak ez diren aldaketak onartzeko prozedura arautzen du dekretu horrek.
- 3.- Lurralde Plan Partzialaren berraztertzea formulatzeko, lantzeko eta onartzeko prozedura Euskal Herriko Lurralde Antolakuntzari buruzko maiatzaren 31ko 4/1990 Legearen 13. artikuluan ezarritakoari lotu beharko zaio.

Kasu hauetan ekingo zaio Plana berraztertzeari:

- a) Behin betiko onartu denetik hamasei urte igaro direnean.
- b) Orokorrean, Lurralde Plan Partzialean biztanleriari, enplegu-dinamikari edo etxebizitzaren merkatuari buruzko oinarrizko magnitudeei dagokienez, aintzat hartu diren hipotesiak behingoan gertatutako zirkunstantzien ondorioz aldatu direnean, eta, beraz, ezarritako antolamendu-irizpide orokorrak aldatu behar direnean.
- c) Euskal Autonomia Erkidegoko Lurralde Antolamenduaren Gidalerroak aldatu edo berraztertu ondoren, lurralde-eredua aldatu behar denean eta horrek eskualde-egituran zuzeneko eragina izango duenean.

## 6. artikulua.– Indarraldia.

- 1.- Lurralde-plan partzial honek indarraldi mugagabea badu ere; 5., 3.- a) artikuluan ezarritakoaren arabera, behin betiko onartzen denetik hamasei urte igaro ondoren berrikusi egingo da. Era berean, Lurralde Plan Partzialaren azpiegitura-aurreikuspenak 16 urteko denbora-horizonterako planteatzen dira.
- 2.- Plan honetako zehaztapenen bat baliogabetzeak, deuseztatzeak edo aldatzeak ez du gainerakoen baliozkotasunean eraginik izango. Haatik, gerta daiteke aurrekoekin lotuta izateagatik edo horien menpe egoteagatik zehaztapenen bat aplikatu ezin izatea.
- 3.- Aiarako Eskualde Egiturako Lurralde Plan Partziala idazteko eta jarraipena egiteko eskumena duten Eusko Jaurlaritzako sailek eta Gipuzkoako Foru Aldundiko sailek memoria bat egingo dute lau urtez behin. Memoria horretan, Planaren betetze-maila baloratuko dute, arloko lurralde-plangintzan eta udal-mailako hiri-plangintzan izan duen eragina aztertuko dute, eta antzematen diren bat ez etortzeak saihesteko, halakorik gertatu bada, hartu beharreko neurriak definituko dituzte. Memoria hori Euskal Herriko Lurralde Antolamenduaren Batzordeari igorriko zaio jakinaren gainean egon dadin eta beharrezko denerako.

## II. KAPITULUA LURRALDE-ANTOLAMENDUKO EREDUA

### 7. artikulua. Lurralde-antolamenduaren helburuak.

Lurralde Plan Partzialaren Lurralde antolamendu-eredua egituratzeko kontuan hartutako helburu nagusiak ondorengo hauek dira:

- a) Lurraldeko natura-baliabideak eta paisaia-balioak zaintzea eta indartzea, biztanleek erabili eta ingurumenaz gozatzeko ondasun gisa eta eskualde-egiturako hirugarren sektoreko aktiboak indartzeko eta kanpoaldean proiektatzeko faktore erantsi gisa. Bereziki, habitat degradatuen eta babes berezia behar dutenen ezaugarri funtzionalak, egiturazkoak eta ekologikoak leheneratzeko helburutzat proposatzen da, era berean.
- b) Lehen sektorearen jardueraren garapenerako oinarrizko euskarri gisa nekazal ingurunearen kontu hartzea, bere sendotzea eta irautea interes orokorraren balioztat hartzen da, ez bakarrik sozial, kultural, eta ekonomikoki baita ere lurraldea babestearen eta mantentzearen ikuspegitik.
- c) Egungo lurralde-antolamenduko eredua azpiegitura berriak espazioan antolatzeke eta etorkizuneko hirigintza-hazkundera hartzeko abiapuntu egoki gisa onartu eta finkatzea.

- d) Lurralde Plan Partzialaren antolamendu-ereduan txertatu beharko dira, bai orain dela gutxi eraikitako azpiegiturak baita orain eraikitzen edo proiektatzen ari direnak ere.
- e) Lurralde Plan Partzialaren antolamendu-ereduari txertatu beharko dira eremu estrategikoen antolamenduak.
- f) Lurralde Plan Partzialeko antolamendu-ereduan kontuan hartu beharko da, eremu funtzionalaren erakundean oinarritzen direnak, azpiegitura euskarrien proposamenez gain, eskualde osoko lurraldean aurreikusitako hiri garapen berrien leku finkatze eta dimentsionatzerako jarraibide batzuk eskaini behar ditu. Hauek derrigorrez garraio sare publikoarengatik baliagarrituak egon behar dira.
- g) Errepide-sarea. Epe luzerako denbora-horizonteko eredu bat hartzea Donostiako eremu funtzionalean garraio eta komunikabideen sare orokorra pixkanaka eta progresiboki etorkizunean konfiguratzeko.
- h) Trenbide-sarea. Eragin anitzeko konfigurazioko trenbide-sarearen kanpoko inpaktuak eta kontsumoak gutxiagotuko ditu; aldiriko ibilbide luzeko eta ertaineko bidaiarien zirkulazio eta salgaiena kalitate bikaina eskainiko du; zirkulazio sarrera eta erakarpenak, aldaketa modaleko eta jarduera logistikoetako guneak lotuko ditu; itsasoko eta errepide bidezko garraioarekin aldaketa modala erraztu eta indartuko du, egoki zabaldu eta diseinatutako terminalen sistema anitzaren bidez eta Lurralde Plan Partzialaren alorrean egituraketa funtzionala eta Lurralde egituratzea positiboki sustatuko ditu.
- i) Europako garraio- eta komunikabide-sarearen testuinguruan eremu funtzionaleko pribilegiatutako kokalekuaren ondorioz egiaztatutako aukera estrategikoen aurrean, Donostiako eremu funtzionalaren barruan garraio sektorearen funtzionamendu optimizatu beharko da.
- j) Eremu funtzional osorako garraio publikoko sistema bateratua eratzea sustatu beharko du.
- k) Eremu funtzionalak «zerbitzu-eskualde» gisako kanpo-proiektzioan eskaintzen dituen alternatiba desberdinak indartu eta baloratzeko estrategia sustatuko da. Eskala orokorreko hirugarren sektoreko eta zuzkidurako ekipamenduak Donostiako eskualde-egituran zehar deskontzentratzea proposatzen da, sarean banatuz lurralde osoan (adibidez, Ficoba, Chillida-leku, etab.).
- l) Donostiako eremu funtzionaleko ekonomia-jarduera berriak eta hirugarren sektorekoak Baiona-Donostia Eurohiriaren Proiektuaren esparruan integratzeko estrategia, espazio, azpiegitura eta zuzkiduren arloan osagarritasun-aukera nabariak eskaintzen dituen eskala handiagoko lurralde-antolamenduko esparrua ere sustatu beharko da.

- m) Donostialdea – Bidasoa Behereko eskualde-egiturako espazioa okupatzeko egungo eredia finkatuko da, eredu horrek hiriak haranetan eta zeharkako korridoreetan kontzentratzea eta kota garaigoetan dagoen haranen tarteko lurraldea zaintzea du bereizgarritzat.

Irizpide orokor hau logikoki gehiegizko eraikuntza-dentsifikazioko eremuak antolatzea saihesteko betebeharrarekin eta ibai-ibarren funtzionamendu egokirako eta ingurumena behar bezala zaintzeko behar adina espazio erreserbak bermatzeko premiarekin bateratu behar da.

- n) Gutxieneko estandarren finkatzean erabakitako irizpideak aldatuko dira, dentsitate gutxiko tipologia duten garapen berrien aurreikuspenak Lurralde Plan Partzialaren antolamendu-eredutik ezabatu beharko dira.
- o) Eremu funtzionalean berezko hiri-nortasuna duten hainbat biztanle-gune izatean oinarritutako egungo hirigintza-eredua finkatu eta indartu beharko dira. Egungo gune anitzeko egiturari eustea, konurbazio osoaren etorkizuneko antolakuntza bermatzeko oinarria baita, eremu funtzionalaren hazkunde globala hiri multzo bakoitzaren proportziosko hedapenaren bitartez ebatziz, bere hiriguneen hirigintza-egituratik abiatuta.
- p) Gaur egun eremu funtzionaleko hiri multzo bakoitzean biztanleriaren eta enpleguaren artean dagoen oreka-egoera sentibera mantendu eta optimizatzea beharrezkoa da. Oarsoaldea, Urumea eta Oria Beherea azpieskualdeetan hirugarren sektorea indartzeko neurriak sartzea, eremu funtzionaleko batez bestekoaren aldean duten defizit erlatiboa murrizteko. Erabileren eta jardueren aniztasunak osatzea motorizatuen joan-etorrien beharrezko handitzea gutxiagotzeko.
- q) Eremu funtzionaleko antolamenduaren helburu gisa «deszentralizazio kontzentratua» edo «sare moduko gune anitzeko hiri» izenda daitekeen hiri-eredua erabaki beharko da, hazkundeak eskualde-zentraltasun handieneko guneen inguruan gehiegi kontzentratu izanaren ondorioz «zentralizazio globalizatuaren» eredu baterantz litekeen noraezean abiatzeko alternatiba gisa.

## **8. artikulua.– Lurraldea antolatzeko eredia konfiguratzeko.**

1.- Lurralde Plan Partzialaren lurraldea antolatzeko eredia gai hauen inguruan planteatutako antolamendu orokorreko proposamen nagusien sintesiak konfiguratzeko du: ingurune fisikoaren arautzea, garraio eta komunikabideen sarearen antolaketa, izaera estrategikoko hainbat hirigintza-eremuren konfigurazioa eta eremu funtzionalaren multzoaren gaineko bizitegi-garapen eta jarduera ekonomikoen garapen berrien banaketa haztatua. 2., 3., 5. eta 6. planoetan adierazitako funtsezko zehaztapen horiekin batera, antolamendu orokorreko beste jarraibide batzuk ere ezartzen dira, uraren zikloaren, zerbitzu-azpiegitura orokorren, ekipamendu komunitario handien eta plangintza bateragarri egitearen gai-eremu espezifikoetarako (4., 7. eta 8. planoak).

Eredua, beraz, Lurralde Plan Partzialean adierazitako proposamen-ondorio nagusien gainjartzea bezala konfiguratzeko da, ingurune naturalari, landa-lurzoruari, mugikortasun-ereduari eta garraio eta komunikabideen sareari, azpiegitura eta zerbitzuen sareari eta hiri-kokaguneen sistemari buruzko ondorioen gainjartze gisa hain zuzen ere.

2.- Planteatutako lurraldea antolatzeko ereduaren oinarritzko egitura osatzen duten Lurralde Plan Partzialaren zehaztapenak honakoak dira:

- a) Ingurune fisikoaren zonifikazio orokorreko proposamena:
  - 1.- Babes naturalistiko eta/edo basogintzako babes berezia duten lurzoruak.
  - 2.- Landa-habitata eta/edo hiri inguruko esparru berdeak finkatzeko babes bereziko lurzoruak.
  - 3.- Ibai-korridoreak.
  - 4.- Hiri inguruko landa-lurzorua.
- b) Ingurune fisikoari buruzko antolamendu espezifikoaren proposamenak:
  - 1.- Hiriarteko landa-parkeak.
  - 2.- Hiri inguruko landa-parkeak.
  - 3.- Nekazaritza eta abeltzaintzako eremu estrategikokoak.
- c) Mugikortasun-ereduaren eskema orokorra finkatzea eta hainbat proposamen espezifiko adieraztea gai hauen inguruan: txirrindulari eta oinezkoentzako oinarritzko hiriarteko sarearen etorkizuneko konfigurazioa, errepede-sare nagusia, trenbide-sareak (Trenbide Azpiegitura Administrazioa (ADIF), Euskal Trenbide Sarea (ETS) eta Abiadura Handiko Trena (AHT)) eta dagozkien geltokiak eta intermodalitate-elementuak, eta portu- eta aireportu-azpiegiturak.
- d) Hiri-ingurunearen antolamendu orokorrari buruzko proposamenak, hirigintzarako okupa daitezkeen lurzoruak globalki mugatuta eta, horien barruan, hainbat esparru espezifiko definituta:
  - 1.- Hiri-taldekatzeak eta hiri-inguruneak.
  - 2.- Hiri-taldekatzeak.
  - 3.- Hiri-inguruko landa-lurzorua.
  - 4.- Ibai-korridoreak.
  - 5.- Lurralde Plan Partzialean izaera estrategikoko eremu gisa definitutako esparruak.
- e) Udal-plangintzan planifikatu beharreko bizitegi-parkea eta jarduera ekonomikoetarako lurzoria antolatzeko eta dimentsionatzeko jarraibide orokorrak adieraztea.
- f) Antolamendu xehatuagoaren eskemak proposatzea izaera estrategikoko eremu gisa definitutako esparruetarako.



- g) Uraren ziklo integralari, zerbitzu-azpiegiturei eta ekipamendu komunitario orokorrari buruzko proposamen orokorrak adieraztea.
- h) Bateragarri egindako lehentasunezko plangintza izan behar duten esparru eta elementu nagusiak finkatzea.
- i) Generoko ikuspegia eta eguneroko bizitza.

### III. KAPITULUA

#### INGURU FISIKOAREN ANTOLAKETA OROKORRA

##### **9. artikulua.– Eremu funtzionaleko ingurune fisikoaren lurralde Antolamendu Orokorrerako oinarrizko zonifikazioa.**

- 1.- Lurralde Plan Partzialaren oinarrizko zehaztapenatariko bat izango da arautze generiko berezia izan behar duten lurraldeko esparruak finkatzea, horren helburua izango baita ingurune fisikoaren balio naturalak, ingurumenekoak eta paisaiari dagozkionak begiratzea eta indartzea eta, bestalde, hirigintza- eta azpiegitura-garapen periferikoak lehen sektorea finkatzeko oinarrizko euskarri izango den landa-ingurunea indartzearekin bateragarri egitea.
- 2.- Espazio-unitate handien lau kategoria definitzen dira, Lurralde Plan Partzialaren Ingurune Fisikoaren Antolamendu Orokorrari buruzko 2. planoan mugatuta daudenak, lehentasunezko ingurune natural eta landa habitat esparru gisa:
  - a) Babes naturalistiko eta/edo basogintzako babes berezia duten lurzorua.
    - 1.- Ingurune fisikoa nagusi duten lurraldeko esparruak, zeinentzat proposatzen baita balio naturalistikoak eta paisaiari dagozkionak indartzea, nekazaritzako eta basozaintzako ustiapeneko jarduera eta eraikuntza bateragarriak mantentzea eta, hala badagokio, hiri inguruko parkeetan integratutako jarduera eta eraikuntza bateragarrien presentzia.
    - 2.- Esparru hauen mugaketan, halaber, eremu funtzionalaren itsasbazterreko tarte garrantzitsua lehentasunez babestu beharrekiko sentikortasuna jasotzen da, babes naturalistiko berezia eman behar zaion lurralde gisa finkatzeko ezaugarriak eta kokapena ditu-eta.
    - 3.- Esparru hauetarako aurreikusitako lurralde-arautzea Lurralde Antolamenduaren Gidalerroetako (LAG) «Babes berezia», «Ingurumen-hobekuntza» eta/edo «Basogintza» antolamendu-kategoriekin pareka daitekeena izango da, zehaztapen hauekin:
      - a) Esparru hauetan gainjarritako baldintzatzaile gisa errespetatuko dira bertan kokatuta dauden espazio natural babestuetarako onartutako arautze- eta kudeaketa-plan guztiak.

- b) Hirigintza-hazkundeak debekatuta daude eta onura publikoko eta gizarte-intereseko eraikuntzak saihestu egingo dira, ingurumena hobetzeko eta/edo basogintza-jarduerarako behar direnak izan ezik.
  - c) Esparru hauetan onartzeko modukoak izango dira, salbuespen gisa, behar den bezala justifikatutako kasuetan eta betiere dagozkien ingurumen-konpentsazioko neurriak hartuta, garraiobideen erabilerak (portuak barne), aireko lineak, lurpeko lineak eta B motako zerbitzu ez-linealen instalazio teknikoak (d1, d2, d3 eta d5 erabilerak Lurralde Antolamenduaren Gidalerroen 8.6.7.D epigrafeko erabileren definizioaren arabera).
- b) Landa-habitata eta/edo hiri inguruko esparru berdeak finkatzeko babes bereziko lurzorua:
- 1.- Landa-habitata nagusi duten lurraldeko esparruak, zeinentzat aldezen baita lehen sektoreko landa-jarduerak eta -eraikuntzak finkatzea eta hobetzea eta Lurralde Plan Partzialean planteatutako hiriarteko eta hiri inguruko landa-parkeetan integratutako jarduera eta eraikuntza bateragarriak mantentzea edo, hala badagokio, garatzea.
  - 2.- Esparru hauetarako aurreikusitako lurralde-arautzea Lurralde Antolamenduaren Gidalerroetako «Nekazaritza eta abeltzaintzako eta landazabaleko zona» antolamendu-kategoriarekin pareka daitekeena izango da, zehaztapen hauekin:
    - a) Esparru hauetan gainjarritako baldintzatzaile gisa errespetatuko dira bertan kokatuta dauden espazio natural babestuetarako onartutako arautze- eta kudeaketa-plan guztiak.
    - b) Zona hauetan hirigintza-hazkundeak debekatuta daude eta onura publikoko eta gizarte-intereseko eraikuntzak saihestu egingo dira, landa-habitata garatzeko behar direnak eta hiriarteko eta hiri inguruko landa-parkeen berezko erabilera eta jarduerari datxekizienak izan ezik, horiei dagozkien antolamendu-plan berezietan xedatzen denaren arabera.
    - c) Zona hauetan finkatu egiten dira lehendik zeuden hirigintza-erabilerak edo, hala badagokio, indarrean dagoen hiri-plangintzan aurreikusita daudenak.
- c) Ibai-korridoreak.
- 1.- Izaera funtsean ibaitarra duten lurraldeko esparruak, eremu funtzionaleko ibai nagusien ibilbidean zehar kokatuak. Ibaiaren behe-ibilgua, lehentasuneko fluxuaren eremua, urpean gera daitezkeen ibarrak, ibarbasoak eta ur-bazterreko zuhaitz-zerrendak hartzen dituzten espazio

- libreen segidak eta haien ertzetan taxututako gainerako espazio libreek osatzen dituzte.
- 2.- Oro har, ibai-korridoreak ur-goraldien erregimenean urpean gera daitezkeen lurzoruei dagozkie. Horiei urpean geratzen ez diren espazio libre berdeak, parkeak eta ur-bazterreko pasealekuak gehitzen zaizkie eta, era berean, ibaien ertzetan kokatutako hiri-eremu finkatuak kentzen zaizkie, eta bertan uholdeak prebenitzeko aktuzioak egin behar dira.
  - 3.- Esparru hauetarako aurreikusitako lurralde-arautzea Lurralde Antolamenduaren Gidallerroetako «Lur gaineko urak babestea» antolamendukategoriarekin pareka daitekeena izango da, indarrean dagoen Euskal Autonomia Erkidegoko Ibaiak eta Errekak Antolatzeko Lurraldearen Arloko Planeari garatutakoa hain zuzen.
  - 4.- Ibai-korridoreetan debekatuta dago:
    - a) Mota guztietako eraikuntzak, ibai-esparruaren zerbitzuari atxiki dakizkiokeen interes orokorreko ekipamenduak izan ezik.
    - b) Komunikabide-sareak, zubiak eta urpean gera daitezkeen ur-bazterreko pasealekuak izan ezik.
    - c) Zerbitzu-azpiegiturak, ibilgu-gurutzatzeak izan ezik eta saneamendu sarea.
  - 5.- Ibai-ibilbideen esparruetan gainjarritako baldintzatzaile gisa errespetatuko dira, Euskal Autonomia Erkidegoko Ibaiak eta Errekak Antolatzeko Lurraldearen Arloko Planaren eta Kantauri Ekialdeko Mugapen Hidrografikoaren Plan Hidrologikoaren arautzeaz gain, esparru hauetan kokatuta dauden espazio natural babestuetarako onartutako arautze- eta kudeaketa-plan guztiak.
  - 6.- Lurralde Plan Partzialean bost ibai-korridore definitzen dira espezifikoki: Oria ibaiaren korridorea, Urumea ibaiaren korridorea, Oiartzun ibaiaren korridorea Jaizubia errekararen korridorea eta Bidasoa ibaiaren korridorea.
  - 7.- Bost ibai-korridoreak ibaia osoan antolatzeko plan berezi baten xede izango dira, eta plan horren udalaz gaindiko irismena izango du (ibai-ibilguaren garapen osoa batera kontuan hartuko da).
  - 8.- Ibaiak osoan antolatzeko plan berezien funtsezko eduki gisa, ibaiaren ibilgua, lehentasunezko fluxuaren eremua eta urpean gera daitezkeen ibarrak hartzeko espazio-esparrua behin betiko finkatzeaz gain, beste zenbait eduki ere kontuan hartuko dira: ibai-ibilbidearen ingurumena eta paisaia balioztatzea; uholdeei aurrea hartzeko neurriak ezartzea, hala badagokio, oztopo hidraulikoak ezabatzeak egin litezkeen esku-hartzeak kontuan harturik; erriberak lehentasunez espazio libre eta berde gisa tratatzea; ibai-ertzetan zehar ibilbide bigunak sortzea; bertan biltzen diren azpiegituren multzoa sektorez gaindiko ikuspegitik antolatzea; eta programatutako esku-

hartzeen ebaluazio ekonomiko eta finantzarioa egitea, dagokien kudeaketa-planarekin batera.

Gainera, kontutan izango dira, ibaiak osoan antolatzeko plan berezien barruan, Natura 2000 Sarearen garapenaren araudiaren lehentasuna, baita indarrean dauden baliabide naturalen ordenaziorako planak eta egon daitezken afekzioen derrigorrezko analisia ere, ebaluazio egoki bat gauzatuz abenduaren 13ko 42/2007 Legearen, Ondare Naturalaren eta Biodibertsitatearen Legearen, 46.4 artikulua araberera.

d) Hiri inguruko landa lurzorua.

1.- Gaur egungo hirigintza garapenaren eremuan lehentasuna duten landa habitat eta ingurune natural erregistratuak dauden lurzoru eremuak, independenteki kontsideratuz haien gehikuntza lurzoru hirigarri gisa hirigintza plangintzako zenbait kasutan onartuta edo tramitazio bidean egon, erabilgarritasun espazialeko eremu kontsideratu dira Lurralde Plan Partzialean.

2.- Esparru horien gainean ez da kontuan hartzen Lurralde Plan Partzialaren denbora-horizontean hirigintzarako okupatzeko premia, eta udal-plangintzan oinarrituta argituko da landa-habitat finkatu gisa kalifikatzeko edo hirigintza-hedapen berriko zonei atxikitzeko aukera.

3.- Aurreikusitako lurralde erregulazioa baliokidegarri izango da esparru hauetan, jadanik ez-hirigarri eta izaera iragankor kalifikatutako lurzoruetan, beti ere, esparru hauetan etorkizunean hirigarri bezala errekalifikazio posible bat gauzatzen ez bada, «Nekazal- abeltzain eta landazabal eremua» Lurralde Antolamenduaren Gidalerroko kategoriari dagokiona, hurrengo zehaztapenak betetzen direlarik:

a) Esparru honen gainean zabalduko dira lurralde-plan sektorial ezberdinek (Nekazaritza eta Basozaintzako, Ibaiak eta Errekak Antolatzea, Itsasertzarena eta Hezeguneena) ezarritako determinazioak. Zehazki, Nekazaritza eta Basozaintzako Lurralde Plan Sektorialaren balio estrategiko altua duten nekazal-abeltzain eta landazabal ordenazioen kategoria barruan dauden lurrak aipatu behar dira, izan ere, hauek planean zehaztuta dituzten mugaketak indarrean mantentzen baitira.

b) Zalantzarik gabe, lurralde erregulazio iragankor hau ordezkatuta geldituko da, etorkizunean hirigintza errekalifikazioa gauzatzeko adjudikatua izan daitekeen kasuari dagokion hirigintza erregulazioagatik.

c) Hori dela eta, eremu hauetan modu iragankor batean debekatuta geldituko dira hirigintza handipenak eta erabilera publiko eta gizarte interesa duten eraikinak ekidingo dira, landa habitata eta hiriko eta hiri inguruko landa-parkeei dagokien ekintzei atxikita daudenak salbu, eskura egongo diren antolamendu-plan bereziei dagokienaren araberera.

- d) Edozein kasu dela eta, esparru hauetan errespetatuko da gainjarritako baldintza gisa, erregulazio guztiak eta Lurralde Plan Partzialeko lurralde ordenazio orokorrean bateragarri eta bertan kokatuak dauden, onartuak izan diren kudeaketa planak babestutako espazio ezberdinentzat.
- e) Jada existitzen diren hirigintzako erabilerak finkatzen dira eta udaleko plangintza orokorrean berhausnarketa baten eragipean jarriko dira, kasu honetan, plangintzan aurreikusitako hirigintza erabilerak, baina oraindik garatuta ez daudenak.

3.- Udal-plangintza orokorreko dokumentuetan ingurune fisikoko espazio-unitate handien kategorizazio hau errespetatu eta zehaztasun handiagoarekin mugatuko da. Ildo horretan, lurzoru urbanizaezinaren kategoria esleituko zaie, justifikatutako salbuespenetan izan ezik, Lurralde Plan Partzialaren «babes naturalistiko eta/edo basogintzako babes berezia duten lurzoruak» eta «landa-habitata eta/edo hiri inguruko esparru berdeak finkatzeko babes bereziko lurzoruak» kategoriei atxikitako lurzoru guztiak, eta espezifikoki halakotzat identifikatuko dira Lurralde Plan Partzialaren «lbai-korridoreak» kategoriari atxikitako lurzoruak, dagokien ibaia osoan antolatzeke plan berezia eginda. Halaber, ez da hirigintza-hazkundeko lurzoru berririk planifikatuko, udal-plangintza orokorraren horizontean.

## **10. artikulua.– Gainezarritako baldintzak. Hiriarteko landa parkeak, hiri inguruko landa parkeak eta nekazaritza eta abeltzaintza eremu estrategikoak.**

1.- Ingurune fisikoaren lurralde-antolamenduaren barruan, izaera osagarria eta zonifikazio orokorrari gainjarria duten antolamendu xehatuko proposamen batzuk planteatzen dira, hiriarteko eta hiri inguruko hainbat landa-parke eta nekazaritza eta abeltzaintzako hainbat eremu estrategiko ere sortzeko.

Natura 2000 Sarearen mugean barruan dauden esparruetan, bereziki kontuan hartuko da eta garrantzi berezia izango du Batasunaren intereseko espezie eta habitaten kontserbazioak.

2.- Lurralde Plan Partzialesan «hiriarteko landa parkeak» deritzen esparruak konfiguratzeko dira, paisaia begiratzea, korridore ekologikoen sarea eta ingurune fisikoa kontserbatzea bermatuko duten, inguruarekin bateragarriak diren lehen sektoreko jarduerak irautea eta indartzea ahalbidetuko duten eta hiriguneetatik hurbil baina haien kanpoan dagoen landa-ingurunean kokatzeko ezaugarri egokiak dituzten ekipamendu eta zuzkidura bereziak kokatzeko aukera eskainiko duten udalaz gaindiko eskalako berdeguneak finkatzeko etorkizuneko eskualde-konurbazioaren barrualdean.

Ingurune Fisikoaren Oinarriko Zonifikazioa eta hiri arteko eta hiri inguruko landa parke hauen egituraketa, Euskal Autonomia Erkidegoko korridore ekologikoen sarearen elementu nagusiekin koherente dira.

Hiriarteko landa-parke hauek definitzen dira, Ingurune Fisikoaren Antolamendu Orokorrari buruzko 2. planoan adierazitako mugaketaren arabera:

- a) Zabalagako hiriarteko landa-parkea  
(Arratzain – Aritzeta – Aingeru Zaindaria – Loretoki – Oriamendi – Arizmendiko Gaina – Teresategi – Santa Barbara – Azkorte – Altzain Gaina)
- b) Lau haizetako hiriarteko landa-parkea  
(Ametzagaña – San Markos – Txoritokieta – Perurena)
- c) Usategietako hiriarteko landa-parkea  
(Altamira – Jaizkibelpe – Gaintzurizketa – Usategieta – Gurutze – Urkabe)

3.- Lurralde Plan Partzialean, halaber, «hiri inguruko landa parkeak» deritzen esparru batzuk ere konfiguratzeko dira, eremu horiek hirien kanpoaldeko hurbileko landa-inguruaren gaineko jolas-hedapenaren lehentasunezko zona gisa arautzeko, izaera ludikoa duten jarduera eta instalazioen presentzia bateragarri egiteko ingurune naturalaren eta korridore ekologikoen kontserbazioarekin, horren ingurumen- eta paisaia-balioak begiratzearekin eta inguruarekin bateragarriak diren lehen sektoreko jarduerak finkatzearekin eta indartzearekin.

Lurralde Plan Partzialean hiri inguruko landa-parke hauek definitzen dira, Ingurune Fisikoaren Antolamendu Orokorrari buruzko 2. planoan adierazitako mugaketaren arabera:

- a) Mendizorrotz-Igeldoko hiri inguruko landa-parkea.
- b) Uliá-Pasaiako bokaleko hiri inguruko landa-parkea.
- c) Guadalupe-Higerreko hiri inguruko landa-parkea.
- d) Leitzarango hiri inguruko landa-parkea.
- e) Urumeako hiri inguruko landa-parkea.
- f) Listorreta-Landarbasoko hiri inguruko landa-parkea.
- g) Ergoien-Arditurriko hiri inguruko landa-parkea.
- h) Ibarla-Meakako hiri inguruko landa-parkea.

4.- Hiriarteko zein hiri inguruko landa-parkeen mugaketa zehatza udal-plangintza orokorrean ezarriko da. Kasu askotan, udalaz gairikoa dutenez, plangintzak bateragarri egiteko prozesua gauzatu beharko da. Parke bakoitza garatzeko antolamendu-plan berezi bat egingo da, antolamendu-jarraibideak, erabilera arautzeko erregimena eta elementu publikoak kudeatzeko formulak ezarriko dituena. Arreta berezia jarriko da parkearen barruan inskribatutako txirrindulari eta oinezkoentzako hiriarteko ibilbideen oinarritzko sarearen konfigurazioan.

Gainera, kontutan izango dira, antolatzeko plan berezien barruan, Natura 2000 Sarearen garapenaren araudiaren lehentasuna, baita indarrean dauden baliabide naturalen ordenaziorako planak eta egon daitezkeen afekzioen derrigorrezko analisia ere, ebaluazio egoki bat gauzatzeko abenduaren 13ko 42/2007 Legearen, Ondare Naturalaren eta Biodibertsitatearen Legearen, 46.4 artikulua arabera.

Halaber, antolamenduko zehaztapen-proposamen berri gisa gehitu egiten da izaera osagarria eta zonifikazio orokorrari gainjarrita duen adierazgarri den mugaketa, idealak

edota lehentasuna duten lurzoru-lokalizazioaren seriea, «nekazaritza eta abeltzaintzako eremu estrategiko» gisa izendatutako eremuen sorrerarako.

Esparru honen inguruan interes orokorreko nekazaritza eta abeltzaintzako ustiapen garapena sustatzen duten inizatibei lehentasunez jazarri ahalko zaie, bermatutako izaera duten horietan dagokion oinarritzat erabili daitezkeen kalifikazio espezifikoko lurzoruak direla eta, hain zuzen ere.

Hurrengo nekazaritza eta abeltzaintzako eremu estrategikoak definitzen dira, Ingurune Fisikoko Antolamendu Orokorren 2. planoan adierazitako mugaketaren arabera:

- a) Igeldoko nekazaritza eta abeltzaintzako eremu estrategikoa.
- b) Igarako nekazaritza eta abeltzaintzako eremu estrategikoa.
- c) Usurbil- Aingeru Zaindariko nekazaritza eta abeltzaintzako eremu estrategikoa.
- d) Aginagako nekazaritza eta abeltzaintzako eremu estrategikoa.
- e) Zubietako nekazaritza eta abeltzaintzako eremu estrategikoa.
- f) Lasarteko nekazaritza eta abeltzaintzako eremu estrategikoa.
- g) Urnieta I.ko nekazaritza eta abeltzaintzako eremu estrategikoa.
- h) Urnieta H. nekazaritza eta abeltzaintzako eremu estrategikoa.
- i) Andoaingo nekazaritza eta abeltzaintzako eremu estrategikoa.
- j) Garciategiko nekazaritza eta abeltzaintzako eremu estrategikoa.
- k) Lau Haizetako nekazaritza eta abeltzaintzako eremu estrategikoa.
- l) Frantzillako nekazaritza eta abeltzaintzako eremu estrategikoa.
- m) Zamorako nekazaritza eta abeltzaintzako eremu estrategikoa.
- n) Iturriotzeko nekazaritza eta abeltzaintzako eremu estrategikoa.
- o) Oiartzungo nekazaritza eta abeltzaintzako eremu estrategikoa.
- p) Gurutzeko nekazaritza eta abeltzaintzako eremu estrategikoa.
- q) Altamirako nekazaritza eta abeltzaintzako eremu estrategikoa.
- r) Jaizkibeleko nekazaritza eta abeltzaintzako eremu estrategikoa.
- s) Jaizubiako nekazaritza eta abeltzaintzako eremu estrategikoa.
- t) Hondarribiako nekazaritza eta abeltzaintzako eremu estrategikoa.
- u) Olabarriako nekazaritza eta abeltzaintzako eremu estrategikoa.
- v) Artiako nekazaritza eta abeltzaintzako eremu estrategikoa.
- w) Lastaolako nekazaritza eta abeltzaintzako eremu estrategikoa.

### **11. artikulua.– Erauzketa-jarduerak.**

Udal-plangintzan ezarriko da erauzketa-jardueren eraginpeko zonen mugaketa, baita beste erabilera batzuetara zuzendu litezkeen mugaketa ere.

### **12. artikulua.– Poluitutako lurzoruak.**

Udal-plangintzak bere informazio-dokumentuetan gehituko ditu eragiten dioten «Euskal Autonomia Erkidegoko Poluitzaileak izan daitezkeen Jarduerak dituzten Kokaguneen Inbentarioan» bildutako esparruak eta erabilgarri dauden lurzoru poluituen katalogoak, bere

antolamendua eta jarduteko proposamenak zirkunstantzia horietara egokitu eta, hartara, inpaktuak zuzendu eta kalteak saihestu ahal izateko.

#### **IV. KAPITULUA**

### **MUGIKORTASUN-EREDUA ETA GARRAIO- ETA KOMUNIKABIDE-SAREAK**

#### **13. artikulua.– Mugikortasun-ereduari eta garraio- eta komunikabide-sareei buruzko Lurralde Plan Partzialaren zehaztapenak.**

Komunikabide-sareei buruzko Lurralde Plan Partzialean plantatzen diren baldintzatzaileak hauek dira:

- a) Udal plangintza orokorren eta komunikabide orokorren sarearen proiektu sektorialen egokitzapena, plangintza aurreikuspenei eta, Lurralde Plan Partzialean (ikus 2.4.3 epigrafea eta 3. Planoa), edo bere Lurralde Plan Sektorialean, definitutako oinezkoen eta bizikleten hiriarteko bideen sarean dauden elementuen taldearen eraikuntza osagarriaren plangintza eta programazio aurreikuspenari.
- b) Hiri-inguruko landatartzat zonifikatutako lurzoruan, udal-plangintza orokorra eta azpiegituren alorreko proiektu sektorialak mugikortasun-ereduan aintzat hartutako elementuak errespetatzearen baldintzapean jartzea.

#### **14. artikulua.– Txirrindulari eta oinezkoentzako hiriarteko oinarrizko sarbide sarea.**

1.- Txirrindulari eta oinezkoentzako lehen mailako sarbide-zirkuituen hiriarteko sarearen konfigurazioa Lurralde Plan Partzialaren erabaki lotesle gisa planteatzen da. Sare hori ibilbide ahalik eta labur, eroso, seguru eta atseginenetan barna antolatu beharko da eta lehentasuna eman beharko zaio, edo parekotasuna behintzat, errepide- eta trenbide-komunikazioen sareen gehiegizko nagusitasunaren inertziaren gainean. Irizpide orokor gisa, ahal izanez gero ibai eta badien haranetan zehar eta haranen arteko konexio-korridoretan mendi-lepoen behealdeko puntuetan zehar antolatzea proposatzen da.

2.- Lurralde Plan Partzialaren 3. planoan jasotako mugikortasun-ereduaren eskema orokorrak izaera orokorreko ibilbide-sarea planteatzen du, batez ere hiriarteko konexioak konfiguratzera zuzendua, hiriguneen barne-irigarritasunari udal-eskalan irtenbidea ematen ari zaiola egiaztatu baita. Oinarrizko sare horretan sartzen dira Gipuzkoako Bizikleta Bideak Antolatzeako Lurralde Plan Sektorialean eremu funtzionalerako planteatutako proposamen guztiak; barne direla, besteak beste, oinezko eta bizikleten ibilbide berrietarako proposamenen bat (adibidez, Lasarte-Andoain konexioa N-1 errepidearen bi adarretako baten bitartez) eta ertzeko pasealeku bigun bat Irungo Plaiaundi inguruan. Oinarrizko irigarritasun-sareak kontuan hartzen ditu, orobat, txalupaz ertzetik ertzerako lekualdatzeko zerbitzuak, askatutako trenbide-plataformen eta -tunelen berrerabilera eta komunikazio



bertikaleko zerbitzu berri garrantzitsuenak, elementu horiek guztiek lehentasunezko zerbitzu publiko baten osagaitzat hartuta.

- 3.- Hiriarteko irisgarritasuneko oinezko eta bizikleten oinarrizko sare horri atxikitako elementu guztien funtzionaltasunean, oinezkoen igarobideari emango zaio lehentasuna, bizikleten trafikoa haren mende utzita, eta bien mende intentsitate baxuko litezkeen trafiko motorizatuak.
- 4.- Hiriarteko oinezkoen eta txirrindularien ibilbide bigunen plangintza orokorra eta haien sustapena eta eraikuntza bateragarri egindako plangintzaren xede izango da espezifikoki.

## **V. KAPITULUA**

### **URAREN ZIKLO INTEGRALA ETA ZERBITZU-AZPIEGITURAK**

#### **15. artikulua.– Uholdeen prebentzioa.**

- 1.- Uholdeei aurrea hartzeari dagokionez, Kantauri Ekialdeko Plan Hidrografikokoan eta Euskal Autonomia Erkidegoko Ibaiak eta Errekak Antolatze indarrean dagoen Lurraldearen Arloko Planaren aldaketan jasotako zehaztapenak beteko dira, eremu funtzionaleko ibilguen multzorako.
- 2.- Planifikatu beharreko zona eremu funtzionalean zehaztuta dauden Uholde Arrisku Garrantzitsuko Eremuetako (UAGE) baten barruan baldin badago, –I. dokumentuaren «Abiapuntuko oinarriak. Azterlanak eta informazio planoak» 2.10 atala–, onartuta edo prestatzen ari diren uholde-arriskua kudeatzeko planetan ezartzen diren prebentzio-irizpide eta baldintzatzaile guztiak bete beharko dira, baita derrigorrezko ingurumen ebaluaketetan ezarritako neurriak ere.
- 3.- UAGE zonetan, uholde-arriskua kudeatzeko onartuta dauden planetan adierazitako babes eta hobekuntzako esku-hartzeak gauzatu daitezzen bultzatzen da. UAGE zonetatik kanpo, urpean gera daitezkeen zonen uholde-arriskua saihestu edo murrizteko esku-hartzeak bultzatzen dira. Bi kasuetan, urpean gera daitezkeen zonei buruzko informazioa eskuragarri dago URaren (Uraren Euskal Agentzia) web-orrian.
- 4.- Dute uholde-arriskuagatik nabarmenean diren ibai-tarteak 4. planoan daude jasota. Hauek dira:
  - a) Oria ibaia. Usurbil, Zubietatik Usurbileraino (ibaian behera). ES017-GIP 16-1 Uholde Arrisku Garrantzitsuko Eremuari dagokio.
  - b) Oria ibaia. Lasarte-Oria eta Zubieta, Oria eta Txikierdi artean. ES017-GIP 16-2 Uholde Arrisku Garrantzitsuko Eremuari dagokio.
  - c) Oria ibaia. Andoaingo hiri-zeharkaldia eta Leitzarar ibaiarekiko elkargunea. ES017-GIP 15-3 Uholde Arrisku Garrantzitsuko Eremuari dagokio.

- d) Urumea ibaia. Hernani, Astigarraga eta Donostia, Epeletik Loiolaraino. ES017-GIP-17-1 eta ES017-GIP-URU-01 Uholde Arrisku Garrantzitsuko Eremuei dagokie.
- e) Oiartzun ibaia eta Lintzirin erreka. Oiartzun eta Errenteria, Lanbarrendik Iztietaraino. ES017-GIP-OIA-01 Uholde Arrisku Garrantzitsuko Eremuari dagokio.
- f) Oiartzun ibaia. Oiartzun, Altzibar auzoa eta Karrika errekarekiko elkargunea. ES017-GIP-OIA-02 Uholde Arrisku Garrantzitsuko Eremuari dagokio.
- g) Jaitzubiko erreka. Irun eta Hondarribia, Urdanibia hoteletik bokaleraino. ES017-GIP-BID-01 Uholde Arrisku Garrantzitsuko Eremuaren zati bati dagokio.
- h) Bidasoa ibaia. Irun, Zaisatik Santiago zubiraino. ES017-GIP-BID-01 Uholde Arrisku Garrantzitsuko Eremuaren zati bati dagokio.
- i) Olaberria eta Artia errekak. Irun. ES017-GIP-BID-01 Uholde Arrisku Garrantzitsuko Eremuaren zati bati dagokio.

#### **16. artikulua.– Goi-arroen drainatzea.**

1.- Lurralde Plan Partzialean, halaber, haran nagusietako alboko azpiarroei eta goi-arro txikiei dagozkien esparruak definitzen dira, dagoeneko urbanizatuta daudenak edo urbaniza daitezkeenak, drainatze-problematikak dituztenak. Lurralde Plan Partzialaren zehaztapan osagarri gisa planteatzen da esparru horien drainatzeari irtenbidea aurkitzeko beharrezkoak diren obrak egiteko premia. Horretarako, hirigintza-garapen osoaren agertokia aintzat hartuko duen arro osoaren azterketa hidrologiko eta hidrauliko integrala egin eta onartu beharko da alde zuzenetik.

2.- Arro horien mugaketa 4. planoan adierazitakoa da. Hauek dira:

- a) Puntapax erreka ibarbidea, Usurbilen.
- b) Anoeta erreka, Donostian.
- c) Sallanea ibarbidea, Lasarten eta Hernanin.
- d) Ziako-Errekabeltz erreka, Andoainen.
- e) Urnietako hirigunetik ibaian gorako goi-arroak.
- f) Latxunbe erreka, Hernaniko hirigunetik ibaian gora.
- g) 27. poligonoa, Donostian eta Astigarragan.
- h) Molinaoko ibarbidea, Donostian eta Pasaian.
- i) Pontika errekaaren arroa, A-8 autobidetik errekan gora, Errenterian.
- j) Lintzirin errekaaren arroa, Lezon eta Oiartzunen.
- k) Jaitzubiko errekaaren arroaren burua, Irunen eta Hondarribian.
- l) Olakiñeta errekaaren arroa, Urune aldea, Irunen.

**17. artikulua.– Ur-hornidura eta saneamendua.**

## 1.- Ur-hornidurak.

- a) Ur-hornidurarekin erlazionaturik, interes orokorreko ekintzatzat ezartzen da, «Añarbe behereko kanalari alternatibo den kondukzio proiektua» eraikitzea.
- b) Proposamen espezifikoko gisa, amaierako hiru ur-biltegiak elkar konektatzeko eraikuntza egitea proposatzen da:

1.- Añarbe sistemako amaierako ur-biltegi berria Zubietan, Donostian.

2.- Amaierako eta Añarbe eta Txingudi sistemak elkarrekin konektatzeko ur-biltegi berria Usategietan, Oiartzunen.

3.- Amaierako eta Añarbe eta Ibiur sistemak elkarrekin konektatzeko ur-biltegi berria Xoxokarako bidean, Urnietan.

## 2.- Saneamendua.

Saneamenduarekin lotuta, jarduteka hauek aurreikusi dira: Andoaingo Ziako erreka-errekastoaren saneamendua; Usurbilgo Aginaga eta Txokoalde auzoen saneamendua; eta Pasai Donibane saneatzea. Gainera, aurreikusteko moduko jardunak sartzen dira; hala badagokio, Atalerrekako HUA eta Loiolako HUA egokitzeko ingurune hartzaileko baldintza egokienetan.

**18. artikulua.– Energia elektrikoa.**

Zubietako goialdean azpiestazio elektriko berri bat eraikiko da, egungo lineatik 132 kW-ko hargune-linea berri batekin, Urnieta eta Andoainen artean Irurain goialdea zeharkatuz (ikus 4. plano).

**19. artikulua.– Hiri-hondakinak kudeatzeko azpiegiturak.**

Kuestio honi buruz, Lurralde Plan Partzialean bakarrik batze puntua den Arzabaletako eremua, Zubietan Goialdean, ordezkatze ideal eta eskuragarri gisa aukeratzeko da etorkizuneko Gipuzkoako Hondakin Kudeaketa Zentroa izateko moldatu daitezkeen konfigurazio funtzionalaren arabera (ikus 4. Plano).

## VI. KAPITULUA

### HIRI INGURUNEAREN ANTOLAMENDU OROKORRA

#### **20. artikulua.– Hiriko edo hiri inguruko garapena izan dezaketen hirigintza-garapenaren esparruak mugatzea.**

- 1.- Lurralde-eskalan babes-elementurik ez duten esparruen gainean gehienek muga batzuk finka daitezen ezartzen da, 9. artikuluaaren arabera, plan honen horizontean zehar udal-plangintzan aurreikusi beharreko hirigintza-garapenaren azalera hedatzeko aukerarako. Mugaketa hori 5. planoan (Hiri-ingurunearen antolamendu orokorra) adierazten da.
- 2.- Hirigintza-garapena izan dezaketen esparru perimetroen barruan, dagozkien udal-plangintzak izango dira hiri-lurzoruen eta lurzoru urbanizagarrien mugak eta dagozkien kalifikazioak ezarriko dituztenak. Lurzoru urbanizaezineko barrutiak ere antolatu ahal izango dituzte, perimetro orokorraren barruan, jakina.
- 3.- Lehen batean, eta behar den bezala justifikatutako udal-plangintzaren ordezkio xedapenik ezean, Lurralde Plan Partzialean hirigintza-garapena izan dezaketen esparrutzat jotzen direnen barnealdean, gainjarritako baldintzatzaille gisa aplikatzekoak izango dira esparru horietan kokatuta dauden espazio natural babestuetarako onartutako arautze- eta kudeaketa-plan guztiak.

#### **21. artikulua.– Hiri Multzoak eta hiri-inguruak.**

- 1.- Lurralde Plan Partzialean eremu funtzionalaren barruan bost hiri-esparru eta hiri-inguruko landa identifikatzen dira, udalaz gairik eta/edo eskualde azpiko izaera dutenak, eta «hiri multzo eta hiri-inguru» gisa definitzen dira. Pixkanaka berezko hiri-zati oso gisa konfiguratzea planteatzen da, horretarako haien barneko hiri-kohesioa finkatuta eta bizitegi-erabileren, jardura ekonomikoen eta zuzkidura-sistemaren eta hirugarren sektorekoaren arteko oreka optimizatuta (Ikus hiri-ingurunearen antolamendu orokorrari buruzko 5. Planoa).
  - a) Txingudiko edo Bidasoa Behereko hiri multzo eta hiri-inguruak Hondarribiko eta Irungo udalerrietako hiri-esparruak eta hiri-inguruko landak hartzen ditu barnean.
  - b) Oarsoaldeko hiri multzoa eta hiri-inguruko landa Lezoko, Oiartzungo, Errenteriako eta Pasaiaiko udalerrietako hiri-esparruei eta Pasaiaiko badiara isurtzen duen Donostiako parteari dagokie.
  - c) Donostia erdialdeko eta hiri inguruko eta Urumeako hiri multzoak Donostiako udal-barrutiko hirigunearen multzoa, ekialdea eta Zubietako barrutia izan ezik, eta Astigarragako eta Hernaniko udalerrietako hiri-garapenak hartzen ditu barnean.

- d) Oria Behereko hiri multzoak eta hiri-inguruko landak Lasarte-Oriako eta Usurbilgo hiri-garapenak eta Donostiako udal-barrutiko Zubietako esparrua hartzen ditu barnean. Esparru horretan hirigintza-garapen garrantzitsuak aurreikusten dira etorkizun hurbilean.
- e) Andoain-Urnieta hiri multzoak eta hiri-inguruko landak Andoaingo eta Urnieta udalerrietako hirigintza-garapenak hartzen ditu barnean. Korridore horretan uren banalerroa Andoain eta Urnieta artean badago ere, Irurain gainean, hirigintza-garapen jarraituak lausotu egin du inguru horretan hiri-jarraitutasunik eza. Alabaina, oraindik ere hiri-hutsune bat dago Urnieta eta Hernani artean. Hori dela-eta, Zabalagako hiriarteko parke handiaren besoetariko bat espazio horretaraino hedatzea proposatzen da Lurralde Plan Partzialean.

2.- Lurralde Plan Partzialak hiri multzo eta hiri-inguruko landa hauen estrategiatzat proposatzen du etengabeko jarraitasunaren hiri-tramaren konfigurazioa, ekipamendu osagarriak gehituta eta zaharkitutako edo bete gabeko tarte espazialak birmoldatuta.

3.- Hiri multzo eta inguru hauen gainean zabalduko dira lurralde-plan sektorialek (Nekazaritza eta Basozaintzakoa, Ibaiak eta Errekak Antolatzekoa, Itsasbazterrena, eta Hezeguneei buruzkoa). Zehazki, Nekazaritza eta Basozaintzako Lurralde Plan Sektorialaren balio estrategiko altua duten nekazal-abeltzain eta landazabal ordenazioen kategoria barruan dauden lurrak aipatu behar dira, izan ere, hauek planean zehaztuta dituzten mugaketak indarrean mantentzen baitira.

## **22. artikulua.– Hiri-inguruetako landa-lurzoruak.**

1.- Aldez aurretik 9. artikuluko 2.d puntuan definitzen den bezalaxe, egungo hiri-garapenaren eremuen inguru hurbilean inskribatutako Lurralde esparruak dira, landa-habitata eta natura-ingurunea nagusi dituztenak, eta kasu batzuetan onartuta dagoen edo izapidetzen ari den hiri-plangintzan lurzoru urbanizagarri gisa sar balitezke ere, Lurralde Plan Partzialean espazio erabilgarritzat jotzen dira.

2.- Esparru horien gainean ez da kontuan hartzen Lurralde Plan Partzialaren horizontean hirigintzarako okupatzeko premia, eta, etorkizunean, udal-plangintzan oinarrituta argitu ahal izango da landa-habitat finkatu gisa kalifikatzeko edo hirigintza-hedapen berriko zonei atxikitze aukera.

3.- Lurzoru horri buruzko erregulazioa arau hauen 9. artikuluko 2.d.3 puntuan dago jasota.

## **23. artikulua.– Ibai korridore hiritarrak.**

1.- Lurralde Plan Partzialaren 5. planoan jasotako ibai-korridore hiritarrak mugatzen dira. Hauek dira:

- a) Oria ibaia, Andoaindik Orioraino.

- b) Urumea ibaia, Ereñozutik bokaleraino.
- c) Oiartzun ibaia, Ergoiendik bokaleraino.
- d) Jaizubia erreka, Urdanibiatik aireporturaino.
- e) Bidasoa ibaiak, Lastaolatik Santiagoren zubiraino.

2.- Ibai-korridore hiritarrak modu iragankorrean zehazten dira ibaiak osoan antolatzeko dagozkion plan bereziak onartu arte. Lurralde Plan Partzialaren 2. eta 5. planoetara izaera lotesleaz gehitzen zaizkie udal-plangintza orokorrean, eta ibai-korridorearen berariazko kategoriari atxikita geratzen diren azalerak ezartzen dira.

3.- Ibaiak Osoan Antolatzeko Plan Bereziaren, Ibai-Korridorearen mugaketarekin batera, oztopo hidraulikoak ezabatzeko aurreikusitako eragiketak eta urpean gera daitezkeen sailkatutako hiri-lurzoruak eta/edo lurzoru urbanizagarrietan uholdeei aurrea hartzeko programatutako obrak definituko dira.

Ibaiak osoan antolatzeko plan bereziek osorik errespetatuko dituzte Kantauri Ekialdeko Mugape Hidrografikoko Plan Hidrologikoaren eta Euskal Autonomia Erkidegoko Ibaiak eta Errekak Antolatzeko Lurraldearen Arloko Planaren zehaztapen arauemaileak, baita uholde-arriskua kudeatzeko planetan ezarritako alderdi baldintzatzaileak ere, UAGE zonen barruan. Gainera, kontutan izango dira gainjarritako baldintzatzaile bezala, Natura 2000 Sareari dagozkion eremuen kudeaketa-plan onartuak eta egon daitezkeen afekzioen derrigorrezko analisia, ebaluazio egoki bat gauzatuz abenduaren 13ko 42/2007 Legearen, Ondare Naturalaren eta Biodibertsitatearen Legearen, 46.4 artikuluen arabera.

## VII. KAPITULUA

### IZAERA ESTRATEGIKOKO EREMUAK

#### **24. artikulua.– Izaera estrategikoko eremuak.**

1.- Lurralde Plan Partzialean hainbat esparru identifikatzen dira, ezaugarri zeharo desberdinak izan arren, izendatzaile komuna dutenak: etorkizun hurbilean eremu funtzionalaren gainean proiektatzen diren azpiegiturak transformatzeko eta hiri-ingurunea berrantolatzeko prozesu garrantzitsuen lurralde-euskarriak eta hirigintza-agertokiak dira guztiak. Donostiako eremu funtzionalaren eta Gipuzkoa osoaren lurralde-antolamenduaren bilakaeran duten zalantzarik gabeko garrantziaren ondorioz, bereziki aztertu eta kontuan hartu behar diren eremu gisa konfiguratu dira Lurralde Plan Partzialaren barruan.

2.- Lurralde-enklabe hauek proposatzen dira "izaera estrategikoko eremu" gisa (ikus mugatzea 5. planoan):

- a) Lasarte-Oriako, Zubietako goialdeetako eta Aritzetako izaera estrategikoko eremuak.
- b) Urumeako korridoreko izaera estrategikoko eremua.
- c) Pasaia badiako izaera estrategikoko eremua.
- d) Lezo-Gaintxurizketa korridoreko izaera estrategikoko eremua.
- e) Txingudiko izaera estrategikoko eremua.

3.- Eremu funtzionalaren multzoaren lurralde-plangintza globalerako erabakigarriak diren enklabe horietarako, espazioa, azpiegiturak eta/edo hirigintza antolatzeko hainbat jarraibide eta irizpide orokor xedatzen dira. Horiek berariazkoak eta orientagarriak izaera estrategikoko eremu bakoitzerako.

4.- Nolanahi ere, identifikatutako eremu estrategikoetako bakoitzaren lurralde-diseinua eta -garapena Lurzoruari eta Hirigintzari buruzko, ekainaren 30eko, 2/2006 Legean ezarritako hiri-plangintzako tresnen bidez gauzatu ahal izango dira (plan orokorra, bateragarritze-plana, plan berezia edo plan partziala), aplikatzekoa den legeria sektorialaren arabera eta bidezko lankidetzeta-hitzarmenen bitartez formulatutako azpiegiturak garatzeko plan berezien kasuan.

Gainera, baldintzatzaile gainjarritzat kontuan hartuko dira Natura 2000 Sareari dagozkion esparruetarako onartutako kudeaketa-planak eta litezkeen eraginak analizatzeko betebeharra. Horretarako, Natura Ondareari eta Biodibertsitateari buruzko abenduaren 13ko 42/2007 Legean ezarritakoaren arabera ebaluazio egokia egingo da.

## **25. artikulua.– Lasarte-Oriako, Zubietako goialdeetako eta Aritzetako izaera estrategikoko eremuak.**

Lasarte-Oriako, Zubietako goialdeetako eta Aritzetako izaera estrategikoko eremuan, espazioa, azpiegiturak eta/edo hirigintza antolatzeko jarraibide eta irizpide orokor haiek aurreikusi dira (ikus 5.1 plano):

- a) Etorkizuneko lehen mailako banaketako bide-sarea.
  1. Bide berria Oria eta N-634 errepidearen artean, Oria ibaiaren ezkeraldetik.
  2. Sarbide berria Eskuzaitzetara eta Artzabaletara.
- b) Txirrindulari eta oinezkoentzako ibilbideen etorkizuneko oinarritzko sarea.
  - 1.- Ibilbide berria Oria ibaiaren ezkeraldetik Oria-Lasarte-Zubieta eta Usurbil artean.
  - 2.- Ibilbide berria: Oria, Eskuzaitzeta, Letabide mendi lepoko tunela, Artzabaleta, Santuenea, Usurbil.
- c) Bizitegi-garapen eta hirugarren sektoreko garapen intentsibo berria, industria-zonaren birmoldaketa, eta ibai-fatxadaren tratamendu berdea finkatzea.
 

Kotxetegietako eragiketa Lasarte-Orian.
- d) Interes orokorreko eta kokapen estrategikoko ekipamendu handiak, Gipuzkoako lurralde historiko osoari egiten baitiote zerbitzu:
  - 1.- Lasarteko hipodromoa.
  - 2.- Real Sociedad klubaren kirol-instalazioak.
  - 3.- Gipuzkoako Hondakinak kudeatzeko zentroa Arzabaletan.
  - 4.- Gipuzkoako espetxe berria.
  - 5.- Etorkizuneko ezarpen estrategikoak Aritzetako trianguluan. 15 ha.

- e) Interes orokorreko jarduera ekonomikoetarako lurzoru-plataformak, kokaleku estrategikoa baitute, bertara errepide-sare nagusitik zuzenean iristeko moduan:
- 1.- Eskuaitzetako (Donostia) izaera estrategikoko eta udalaz gaindiko poligono berria. 70 ha.
  - 2.- Zubietako garraio-zentroa, Bugati poligonoa. Donostia. 20 ha.
  - 3.- Jarduera ekonomiko berrien industrialdea, Michelin birmoldatzearen ondorioz. Lasarte-Oria. 2 ha.
- f) Añarbeko ur-hornidurako sare nagusia Oria Beherera hedatzea.
- Zubietako goialdeetan ur-gordailu nagusi berria eta Usurbilekin Santuenean zehar konektatzeko hodi berria eraikitzea.
- g) Zabalaga-Aritzetako hiriarteko landa-parkea.
- Aritzetako triangeluan aurreikusitako garapenak etorkizuneko Zabalagako hiriarteko parkean integratzea.

## **26. artikulua.– Urumeako Korridoreko izaera estrategikoko eremua.**

Urumeako korridoreko izaera estrategikoko eremuan, espazioa, azpiegiturak eta/edo hirigintza antolatzeko jarraibide eta irizpide orokor haiek aurreikusi dira (ikus 5.2 plana):

- a) Urumeako ibai-korridorea mugatzea eta ibilguaren eredu sekzio minimoak eta hari lotutako zona erantsiak finkatzea.
- Zehazki, hiru eredu-sekzio minimo zehazten dira hiru puntu kritikotarako. Sekzio horiek lotesletzat joko dira, harik eta antolamendu integratuko plan berezian, hala badagokio, bertan sartutako azterketa hidraulikoa onartzen denean, berriz formulatzen diren arte.
- b) Txirrindulari eta oinezkoentzako hiriarteko jarraitutasuneko ibilbideen sarea, Urumeako korridorean antolatzekoa.
- Ibilbide horien trazadurak eta ezaugarri nagusiak udalaz gaindiko eskalako elementu egituratzaile gisa definitu beharko dira antolamendu integratuko plan berezian, eta gero udal-plangintzari gehitu beharko zaizkio.
- c) Hiri-ardatz nagusi handi bat konfiguratzea Urumeako korridorean zehar, jarraitua Amaratik Hernaniraino, GI-131 errepidea pixkanaka hiri-bulebar bihurtzearen bidez.
- Hiri-bulebar moduko ardatz hori udalaz gaindiko eskalako elementu egituratzaile gisa formalizatu beharko da antolamendu integratuko plan berezian, eta gero udal-plangintzei gehitu beharko zaie.



- d) Ibai-fatxadaren tratamendu kualifikatua konfiguratzea haranean zehar aurreikusitako hurrenez hurrengo hirigintza-garapenetarako, erriberako zerrenda berdeak eta oinezkoentzako ur-bazterreko ibilbide zuhaitzunik sortuta korridorean zehar programatutako bizitegi-garapen berrietan eta hirugarren sektoreko garapen intentsibo berrietan.
- e) Egungo ADIF sarea aldiriko zerbitzu gisa indartzea, geraleku berriak irekita Astigarragan eta Loiolako Erriberetan (ETS sarearekiko aldagunea) eta egun daudenak hobetuta Hernani-Erdigunean, Hernani-Florian, Martutenen eta Txominen.
- f) Egungo ETS sarea aldiriko zerbitzu gisa indartzea, geraleku berriak irekita Loiolako Erriberetan (ADIF sarearekiko aldagunea) eta Intxaurren eta egun daudenak hobetuta Anoetan eta Loiolan.
- g) Geltoki/aldageltoki berri hauen inguruan garraio publikoko terminalak eta izaera enblematikoko zuzkidura-ekipamenduak eta hirugarren sektorekoak integratuta eraikitze eragiketak:
- 1.- Atotxa (ADIF aldiriak / Ibilbide luzea / AHT / Autobusak)
  - 2.- Loiolako Erribera (ADIF aldiriak / ETS aldiriak / Autobusak)
- h) Trenbide-sare berria ezartzea, hegoaldetik sartuta, zabalera internazionalerako (UIC) sare berriarekin, iberiar zabalera ADIF sarearekiko zabalera-aldageltoki gisa funtzionatuko duen Astigarragako Trenak Aurreratzeko eta Aparkatzeko Postuaren (PAET-TAAP) plataformaraino. Trenak Aurreratzeko eta Aparkatzeko Postutik (PAET-TAAP) sare berri bat antolatuko da, zabalera mistoko Oarsoalderanzko kanpoko saihebidetako moduan (salgaietarako by-pass trenbidea eta AHTren zuzeneko pasabidearen aukera). Halaber, zabalera mistoa edo hirugarren haria gehituko da Donostia erdialdetik igarotzen den egungo sarean, eta bidaiarien trafikorako erreserbatuko da (aldiriak, ibilbide luzea eta AHT).
- i) Astigarragan, PAET-TAAP plataforma berriaren ondoan, Astigarragarako aldiriko geltoki berri bat sortzea. Ibai-korridorarako 95 m zabaleko C-C sekzio minimoa errespetatuko da, eta ibilgailu-bide bat eta oinezkoentzako pasagune bat antolatuko dira Astigarragatik sartzeko.
- j) Abiadura handiko trena Donostialdeko erdialdetik sartzeko irtenbidea, trenbide-azpiegituraren multzoari tratamendu integratua emanez (iberiar zabalera eta zabalera internazionala (UIC)), aldiriko zerbitzuaren ahalik eta funtzionaltasun handienarekin bateragarria. Martutene parean trazadura artezteko aukera. Geralekuak Martutenen, Txominen eta Loiolako Erriberan (ETS sarearekiko aldageltokia) eta ADIF geltoki berria (AHT / Aldiriak / Ibilbide luzea) Donostia erdialdean (Atotxa) (autobus-geltoki berriarekiko aldageltokia).

**27. artikulua.– Pasaiaiko badiako izaera estrategikoko eremua.**

- 1.- Pasaiaiko badiako izaera estrategikoko eremurako, espazioa, azpiegiturak eta/edo hirigintza antolatzeke zenbait jarraibide eta irizpide orokor planteatzen dira. Gainera, modu koordinatuan eta osagarrian, alboan dagoen Lezo-Gaintxurizketa korridoreko izaera estrategikoko eremurako ere (5.3 planoan dago jasota) ezarritako jarraibideak eta irizpideak jaso dira.
- 2.- Pasaiaiko portuko portu-sistema orokorra Zerbitzu Eremua Antolatzeke Plan Berezia da (horren antolamendu xehatuari buruzko dokumentua), eta bertan ezarritakoa jarraitu behar da. Hori dela eta, ondorengo puntuan adierazten diren ordenazio-arau eta –irizpide orokorrek gomendio-izaera dute.
- 3.- Antolamenduko jarraibide eta irizpide orokorrak hauek dira:
  - a) Hiriarteko ibilbide publiko hauek finkatzea eta/edo irekitzea:
    - 1.- Ur-bazterreko ibilbidea badiaren iparraldetik, Donibane - San Pedro txalupa barne eta Bokaleko pasaleku publikoekin lotura.
    - 2.- Ur-bazterreko ibilbidea badiaren hegoaldeetik, Errenteriatik Herreraraino.
    - 3.- Ur-bazterreko ibilbidea GI-3440 errepidearen Lezo mendebaldeko saihebidetan.
    - 4.- Trintxerpe-Herrera konexioak.
  - b) Portuaren barnealdea kanpoko komunikabide-sare nagusiekin eta Lezo-Gaintxurizketa korridoreko zona logistikoarekin errepidez zuzenean konektatzeko elementu berriak irekitzea. Epe ertain-luzera lehentasuna emango zaio portuaren ekialdeetik autobidearekiko konexioak ebazteari.
  - c) Portu-barrutirako tren-sarbidea hobetzea, hirugarren haria edo zabalera mistoa ezarrita egungo ADIF sarean.
  - d) ETS sareko geltoki berria Altza-Auditz-Akularren, eta Antxoko geltokia eraberritzea.
  - e) Portu-jarduera ekonomikoa finkatzea, hobetzea eta/edo transformatzea.
  - f) Donibanen, San Pedron eta Herrera-Trintxerpen gaitu diren kirol-dartsenak finkatzea.
  - g) Pasaiaiko badia hirigintzaren aldetik lehengoratzeko eta portua modernizatzeke prozesua, portu-barrutiaren barnean erabilerak transformatzeke esku-hartzeko hauek gauzatuz:
    - 1.- Bokaleko ur-bazterreko pasealeku publikoak.
    - 2.- Ekipamendu publikoak (Albaola Proiektua). Ondartxo.
    - 3.- San Pedroko eta Trintxerpeko kaietako berrantolaketa eta erabilerak publikoak.

4.- Hirigintza-garapen berriak, jarduera ekonomiko aurreratuetarako poligono-formatu berriak, hiri-frontea eta portu-jarduera sortzea, Herreran arreta berezia jarrita.

h) Pasai Antxon ADIF sareko geltokia berrantolatzea, espazio librea itzuliz Antxon N-1 errepide zaharraren bulebarra zabaltzeko eta Antxo eta portuaren arteko trenbide-oztopoa tratatzeko.

i) Lezoko hirigunearekiko elkargune-frontea berrantolatzea, eta GI-3440 errepidearen saihebidetza bat antolatzea Donibanera iristeko eta erlantz moduko pasealeku berri bat porturantz hirigunea errematatzeko.

j) Bordalabordaren mendebaldeko muturra berrantolatzea eta erabilera publikoa.

## **28. artikulua.– Lezo-Gaintxurizketa korridoreko izaera estrategikoko eremua.**

1. Lezo-Gaintxurizketako izaera estrategikoko korridorearen eremuan, espazioa, azpiegiturak eta/edo hirigintza antolatzeko jarraian adierazten diren jarraibide eta irizpide orokorrak aurreikusi dira –haiek eragin osagarriak eta sinergikoak dituzte Pasaiako portuan aurreikusitako esku-hartzeekin (5.4 planoan jasotzen dira)–:

a) Lurralde Plan Partzialaren mugikortasun-ereduan aurreikusitako txirrindulari eta oinezkoentzako hiriarteko ibilbide guztiak finkatzea.

b) Lanbarrenen lotura berri bat eraikitzea egungo AP-8/AP-1 autobidearen gainean, Lezo-Gaintxurizketa korridorea zuzenean konektatzeko errepide-sare nagusiarekin.

c) AP-8/AP-1 autobidearen Lanbarrengo lotura berria GI-636 eta GI-2638 errepideekin eta, horien bitartez, Pasaiako portuarekin eta korridoreko egungo eta/edo etorkizuneko jarduera ekonomikoen poligonoekin konektatzeko bide-sistema konfiguratzeko. Bide-sistema berri horrek ordeztu egingo du GI-2132 errepidearen egungo hiri-ardatza, eta Arraguan eta Larzabalen zeharreko egungo trafiko astuna ezabatzea ahalbidetuko du AP-8/AP-1 eta GI-636 errepideen arteko konexio-zonan.

d) Portuaren eta paper-fabrikako lotura berriaren arteko bide-konexioa bikoiztea, portuaren eta korridorearen arteko salgaien trafiko astunaren kanalizazioa xurgatzeko.

e) Lurralde Plan Partzialaren mugikortasun-ereduaren eskema orokorrean aintzat hartutako trenbide-elementu berri guztiak korridorearen plangintzan integratzea, abiadura handiko sare berria (zabalera internazionala (UIC)) eta ADIF sareko salgaientzako saihebidetza (iberiar zabalera eta UIC zabalera) garatzeko Astigarraga eta Oarsoaldea artean. Eredu horrek aukera ematen du UIC zabalera-erako trenbide berri bat antolatzeko Lezoko plataformatik porturaino, egungo ADIF sarearen trazadurari jarraiki, eta Pasai Antxoko egungo trenbide-zabaltzaren zati bat portuko salgaien aldageltoki gisa finkatzeko.

- f) Lezoko plataforma intermodal berria konfiguratzeko.
- g) Korridorean izaera estrategiko eta logistikoko jardura ekonomikoetarako hainbat plataforma berri sortzeko proposamena. Korridorearen esparruan gara daitezkeen izaera estrategiko eta logistikoko jardura ekonomikoetarako plataforma berrien azalera gordina 61 ha-tan dimentsionatzea.
- h) Altamirako bizkarra Usategietako hiriarteko landa-parkearen zati gisa integratzeko proposamena, Lezoko eta Errenteriako hiriguneak eta korridoreko polo logistiko berria egituratzeko eta elkartzeko berdegune libre bat konfiguratzeko.
- i) Lintzirin sistemako azpiarro guztiak drainatzeko sistema globalaren azterketa eta irtenbide integratua, plataformak garatzeko beharrezkoa den kondizionante bezala.

## 29. artikulua.– Txingudiko izaera estrategikoko eremua.

1.- Txingudiko izaera estrategikoko eremuan, espazioa, azpiegiturak eta/edo hirigintza antolatzeko jarraibide eta irizpide orokor haiek aurreikusi dira (ikus 5.5 planoan jasotzen dira):

- a) Irungo geltokia.

Proposatzen da Irungo geltokiko trenbide-espazioak transformatzeko eragiketa AP-8/AP-1 autobidearekin lotune berri baten bitartez zuzenean konektatzeko bide bat irekitzeari lotzea eta lehentasunez erabiltzea, beste hirigintza-erabilera konbentzional batzuekin batera, hiri-zentraltasun handieneko komunikabide-aldageltoki bat sortzeko eta bizileku-erabilera trinko batera, unibertsitate ekipamenduetara, hirugarren zerbitzuetara, merkataritzara eta hiri-aisi hornidurara bideratuta.

- b) Txingudiko Babestutako Eremua.

Txingudiko Baliabide Naturaletako Plan Berezia errebisatzea proposatzen da; ordenazioa burutu eta, ADIF-en egungo trenbide-zabaltza transformatzearen ondoriozko hondar-lurzoruak eta Zubietako inguruneke lurzoruak gehituz, babestutako eremuak handitu dezan.

Oinezkoen eta bizikleten ibilbide berri bat ezartzea proposatzen da, Oxinbiribil eta Hondarribia artean Txingudiko badiaren ertzetik.

- c) Zubieta.

Zubieta zona erabilera hauetara zuzentzeko aukera planteatzen da: enpresentzako zerbitzuen eta jardura aurreratuen parkea; eta bizitegi,

zuzkidura eta hirugarren sektorerako garapen berriak, Txingudi eremuko babestutako espazioak areagotzeko aukerak aztertzea barne dela.

d) Hondarribiko aireportua.

Proposatzen da aireportua finkatzea, pista zabaldu gabe, eta anezka-zerbitzu publikoa sortzea Irungo geltokiaren eta aireportuaren artean zuzenean konektatzeko, zehaztu beharreko moduaren arabera. Anezkak ezin izango du interferentziarik ekarri aireportua ustiatzeko eskumenen jardunean.

Donostiako aireportuko aireportu-zerbitzuko zonaren barruan, aireportu-erabilera publikoa eta aireportua ustiatzearekin lotutako jarduerak ezarri dira. Kontraesanik egonez gero, Donostiako Aireportua Bideratzeko Planean jasotako xedapenak nagusituko dira.

- 2.- Eremu estrategiko osoaren zonifikazio globalerako proposamen adierazgarri gisa, haren esparruetan lurzoruaren erabilerak berriz esleitzeko irizpide orokor batzuk planteatzen dira Lurralde Plan Partzialean, haiek Lurralde baldintza naturalistikoaren arabera hierarkizatzen eta azpiegitura-transformazioen ondorio diren sinergien aprobetxamendu publikoa optimizatzen.

Lurzoruaren lau tratamendu mota proposatzen dira, 5.5 planoan ezarritako zonifikazioaren arabera:

- a) Balorazio naturalistiko eta ingurumen-balorazio handieneko erabilerak berresleitzea (Txingudiko Babestutako Eremua).
- b) Zerbitzuetako parkearen eta jarduera aurreratuen hirugarren sektoreko hirigintza-erabilerak, zuzkidura edo ekipamendu aurreratuen gisakoak, ingurunearen paisaia-baldintzak, baldintza naturalistikoak eta ingurumenekoak begiratzearekin bateragarriak direnak berresleitzea (Zubieta)
- c) Hiri-zentraltasun berria sortzen duten hirigintza-erabilerak ahalik eta intentsitate eta dibertsifikazio handienarekin ezartzeko estrategia, komunikabide-aldageltoki berriaren ondorio den irisgarritasunean bermatuta (geltoki berriak, bizitegi intentsiboa, unibertsitate-ekipamendua, hirugarren sektoreko zerbitzuak, saltoki guneak eta hiri-aisiako zuzkidurak) (Irungo geltokia)

- 3.- Hona hemen Txingudiko eremu estrategikorako planteatutako proposamen espezifiko nagusiak, zehatz-mehatz adieraziak. 5.5 planoan daude jasota eta hauek dira:

- a) Irun erdialdeko lotune berria AP-8/AP-1 autobidean.
- b) Lotune berriaren eta komunikazio-aldagune nagusi berriaren arteko zuzeneko sarbideak, dagoen hiri-egiturarekin bat etorritik.
- c) Irungo trenbide-instalazioak osoan transformatzeko eta hiri-zentraltasuneko nodo berri bat (ADIF / ETS / Autobus aldageltokia) sortzeko eragiketa.

- d) ADIF geltoki berria (Aldiriak / Ibilbide luzea / AHT), zabalera mistokoa.
- e) ETS geltoki berriak (aldiriak) Irun erdialdean (Colon eta Belaskoenea).
- f) Autobus-geltoki berria (Aldiriak eta Ibilbide luzea).
- g) Irun erdialdea iragazkortzea, oinezkoen, bizikleten eta ibilgailuen hiri-konexio berriak antolatuta.
- h) Aireportua pista handitu gabe finkatzea.
- i) Irungo geltokia, aireportua eta Hondarribiko erdigunea zuzenean konektatzeko anezka-zerbitzu publikoa, definitzeko dagoen moduaren arabera.
- j) Bizikleta eta oinezkoen pasealeku berria Txingudiko badiaren bazterretik, Oxinbiribil eta Hondarribia artean.
- k) Txingudiko padura handitzeko aukera, Irungo egungo trenbide-instalazioak osoan transformatzeko prozesuan trenbide-zabaltzaren zatia eraistean.

## VIII. KAPITULUA

### ETXEBIZITZA PARKEAREN ANTOLAMENDUA

#### **30. artikulua.— Bizitegi-parkea antolatzeko irizpide orokorrak.**

- 1.- Lurralde Plan Partzialean, planifikatutako etxebizitza-parkearen dimentsionamendua arautzeko parametro kuantitatiboak adierazi aurretik, irizpide orokor sorta bat ezartzen da eremu funtzionaleko etxebizitza-parkea hirigintzaren aldetik planifikatzeko, udalerrri bakoitzean aplikatu beharko diren irizpideak, dagokion plangintza orokorraren dokumentuan erantsiz.
- 2.- Hiri-plangintzan lehentasuna eman behar zaio barne-berrantolamenduan eta lehendik dauden hiri-ehunen aprobetxamendu hobean oinarritutako bizitegi-parkearen hazkundeari —hirigintza birmoldatzeko eta birgaitzeko prozesuen bitartez—, lurzoru berriak okupatzeko eragiketa hedakorrak sistematikoki programatzearen gainera.  
  
Garapen iraunkorreko estrategia horrek egun dauden azpiegitura-euskarriak aprobetxatzea eta berritzea ahalbidetzen du, lurzoru-kontsumo berrien premiarik gabe eta premiagabeko azpiegitura- eta zuzkidura-elementu berriak eraiki behar izan gabe.
- 3.- Hiri-plangintzak bere egin eta aintzat hartu beharko du bizitegi-parkearen barruan okupatu gabeko etxebizitzaren stock tekniko etengabea dagoela eta dauden etxebizitzaren ehuneko gutxi-asko esanguratsua bigarren bizileku gisa edo beste jarduera batzuetarako erabiltzen dela.

- 4.- Hiri-plangintzan, udalerrri bakoitzeko etxebizitza-parkea diseinatzen denean, bizitegi-formula berrien eskari gero eta handiagoa aintzat hartu beharko da. Ildo horretan, bizitegi kolektiboen tipologiak, tutoretzapeko apartamentuak eta etengabe bizitzeko beste zenbait aukerako formatu aurreikusi beharko dira, zenbait kasutan zuzkidura-ekipamenduaren epigrafeari atxikitze modukoak.
- 5.- Babes publikoaren araubideren bat dagokion etxebizitza programetan izendatutako bizitegi-lurzoru plangintzarako irizpide kualitatibo gisa, lanik egokienak aukeratu beharko dira udal plangintza orokorrean, bere orografiagatik, dentsitate altuko tipologiak ezartzeko eta hirigintza zama gehiegirik gabe, komunitate-ekipamenduen zentroetatik eta garraibide publiko sareen geltokietatik ahalik eta hurbilen kokatuak.
- 6.- Azkenik, etxebizitza batean bizi den «familia-taldearen» tamaina murrizteko joera laguntzeko, hiri-plangintzan beharrezkoak diren aldaketa tipologikoak eta/edo araudia egokitzekoak aintzat hartu beharko dira, eraikitako sabai-azalera edo aurreikusitako sabai-azalera eraikigarria handitu gabe etxebizitza kopurua handitzeko eta, hartara, adierazitako joerari erantzuteko (etxebizitzaren azalera minimoa murriztea, egun dauden etxebizitzetariko batzuk zatitzeko aukera, lokal jakin batzuk etxebizitza gisa berrerabiltzeko aukera, etab.).

### **31. artikulua.– Udalaren hiri-plangintzan antolatu beharreko etxebizitza-parkearen hazkunde-aurreikuspenak dimentsionatzea eta espazioan banatzea.**

1. Plangintza orokorraren berrikuspenetan, 8 urteko horizonterako bizitegi-ahalmena edo bizitegi-parkearen hazkunde-kuantifikazioa aurreikusiko da, Lurralde Antolamenduaren Gidalerroetan ezarritakoaren arabera.
- 2.- Udalerrri bakoitzari dagokion planifikatutako bizitegi-parkearen hazkunde-kuantifikazioa ezarri da. Kuantifikazio hori zehaztuta dago Donostiako eremu funtzionaleko bizitegi-parkea antolatzeko taulan (memoriaren barruan), esanahi hau duen balio-tartea ezarrita:
  - a) Etxebizitza-parkeen hazkundearen balio maximoa plangintzan: lurraren gainkalifikazioaren ondorioz hiri-garapen desordenaturik ez gertatzeko udal plangintzari emandako balioa.
  - b) Etxebizitza-parkeen hazkundearen balio minimoa plangintzan: kalifikatutako lurraren gabezia ekiditeko plangintzari emandako balioa.
- 3.- Memorian jasotako bizitegi-parkea antolatzeko taulan, oro har, eta udalerrrien arabera banakatuta, ezartzen dira Lurralde Plan Partzialaren proposamenak udal-plangintza orokorrean aurreikusi beharreko bizitegi-parkerako hazkundearen dimentsionamendu maximo eta minimoetarako, 8 urterako banakatuta.
- 4.- Eremu funtzionaleko Etxebizitza Parkea Antolatzeko Taulan kontuan hartu diren planifikatutako etxebizitza parkeen hazkundearen dimentsionatzeak barne du eremu funtzionaleko udalerrri bakoitzaren etxebizitza kopuru totalaren hazkunde globala, beren kokalekuari independente nahiz landa ingurunearen barne dauden eremu urbanoetan

eta/edo hirigune urbanizagarrietan edo urbanizaezina den lurzoruan banatutako etxebizitzetan izan.

- 5.- Azkenik, Euskal Herriko Lurralde Antolakuntzaren, maiatzaren 31ko, 4/1990 legaren 12. Artikuluaren xedapenari dagokionez, Lurralde Plan Partzialaren zehaztapenetako bat bezala, babes ofizialeko etxebizitzaren eraikuntzarako gorde behar diren lurzoruak azalerak zenbatekotzearen beharra ezartzen da. Euskal Autonomia Erkidegoko Lurzoru eta Hirigintzaren ekainaren 30eko 2/2006 Legearen onarpenarekin, babes publikoko araubideren baten menpeko etxebizitzaren lurzoruak gordetzearen derrigortasuna, 80. eta 82. artikuluen arabera, bereziki erregulaturik dagoela jakinarazten da. Beraz, ez da xedapen berezirik ezarri behar Lurralde Plan Partzialean, indarrean dagoen legeriara joko da. Kontuan izanda Donostiako eremu funtzionaleko hamahiru udalerrietako bakoitzak 3.000 biztanletik gora dituela, udalerrri horien guztien hiri-plangintzak babes publikoko erregimenen baten pean jarritako etxebizitzetara zuzendutako lur kalifikatuen erreserba bat ezarri beharko du, 2/2006 Legean ezarritako estandarrak beteko direla bermatzeko.

### **32. artikulua.– Bizitegi-parkea hiri multzoka eta/edo udalerrika antolatzeko. irizpideak.**

- 1.- Bizitegi-parkea antolatzeko Lurralde Plan Partzialaren 6. planoan eta Etxebizitzaren bizitegi-parkearen antolamenduari buruzko memoriaren 8. atalean jaso egiten da, proposamen-moduan, indarrean dagoen udal-plangintzan eta izapidetzen ari diren berrikuspenez prozesuetan ezarritako bizitegi-parkearen hazkunde-erreserba nagusien mapak eta kuantifikazioa. Adierazitako taula eta 6. plana erkatuta, Lurralde Plan Partzialean azpieskualde eta/edo udalerrri bakoitzerako planteatu diren udalaz gaindiko eskalako antolamendu-proposamenak ondorioztatzen dira. Horretarako, jarraibide kuantitatibo globalak ezarri dira, lehendik dagoen bilbean hirigintzaren aldetik integratzeko ezaugarri hobeak dituztelako lehentasunezko zatitza jotzen diren jarduketak adierazi, eta udal-plangintzan aintzat hartu ez den interes orokorreko eragiketa espezifikoaren bat ere planteatu da Lurralde Plan Partzialean. Proposamenen laburpena jarraian adierazten da.

#### 2.- Txingudin (Hondarribia eta Irun):

- a) Planaren tarteko horizontean (2016-2023) Irunen planifikatutako bizitegi-parkearen hazkundearekiko doikuntza, lurralde-plan partzial honetan ezarritako kuantifikazio-irizpideen arabera.
- b) Bizitegi-garapen berrien lehentasunezko kokapena Irun-Hondarribia konurbazioaren multzoaren barruan berriz banatzeko aukera, bide irisgarritasuneko baldintzak eta aldiriko trenbide-zerbitzuen erabilgarritasuna kontuan hartuta.

#### 3.- Oarsoaldean (Lezo, Oiartzun, Errenteria, Pasaia eta Donostia ekialdea):

- a) Indarrean dagoen plangintzaren dimentsionamenduak Lurralde Plan Partzialaren erdiko horizonterako (2016-2023) aurreikus daitezkeen etxebizitza-parkearen hazkunde-premiak asetzen ditu, Oarsoaldean sortutako eskaria udalerrien artean modu egokian banatu izanaren testuinguruan, ez baitago behar adina lurzoru erabilgarri Errenteriako eta, batez ere, Pasaia bizitegi-hazkunderako.



- b) Lurralde Plan Partzialaren amaierako horizontean (2016-2031) gomendatzen da espazio-erreserba egoki handienak dituzten udalerriek, hots, Lezok eta, batez ere Oiartzunek eta Donostia ekialdeak, beren plangintzan oreka dezaten Errenterian eta, batez ere, Pasaian aurreikus daitekeen bizitegi-hazkunderako lurzorurik eza.
- c) Gomendatzen den beste aukera bat da Errenterian bizitegi-dentsitatea handitzea etorkizuneko Gamongoa, Perutxene eta Palacio-zarra poligonoetan eta, aitzitik, Zamalbideko eta Tolare-berriko garapenak berraztertzea.

4.- Donostiako erdialdean eta Urumean (Donostiako erdialdea, Astigarraga eta Hernani):

- a) Indarrean dagoen plangintzaren dimentsionamenduak Lurralde Plan Partzialaren erdiko denbora horizonterako (2016-2023) aurreikus daitezkeen etxebizitza-parkearen hazkunde-premiak asetzen ditu, sortutako baterako eskari globala Donostia erdialdearen eta Astigarraga eta Hernaniko udalerrien artean modu egokian banatu izanaren testuinguruan.
- b) 15.000 etxebizitza berri inguruko dimentsionamendu globalaren proposamena Lurralde Plan Partzialaren amaierako denbora horizontean (2016-2031) planifikatutako etorkizuneko bizitegi-parkerako, Donostia erdialdeko, Astigarragako eta Hernaniko plangintzen batukari konpentsaturako.
- c) Antondegirako bizitegi-hazkunderaren aurreikuspena berraztertzeke proposamen osagarria.

5.- Oria Beherean (Usurbil, Lasarte-Oria eta Donostiako Errekalde eta Zubieta auzoak):

- a) Lasarte-Oria, Usurbil eta Donostia mendebaldearen (Zubieta eta Rekalde) artean planifikatutako bizitegi-parkearen hazkundearekiko doikuntza, lurralde-plan partzial honetan ezarritako kuantifikazio-irizpideen arabera.
- b) Lehentasunezko zatitza jotzen diren jarduketak jakin batzuk ezartzen dira udalplangintza bakoitzean ekin beharreko jarduketak errazago hautatzeko. Ildo horretan, Lasarten Kotxetegiako eta Okendoko eragiketari eta Usurbilgo hirigune zentratean kokatutako lehentasuna ematea proposatzen da. Horren osagarri, Zubietan programatutako Aldatxetako garapena berraztertzea gomendatzen da.

6.- Andoainen eta Urnietan:

- a) Andoainen eta Urnietan planifikatutako bizitegi-partearen hazkundearekiko doikuntza, lurralde-plan partzial honetan ezarritako kuantifikazio-irizpideen arabera.
- b) Lehentasunezko zatitza jotzen diren jarduketak jakin batzuk ezartzen dira ekin beharreko jarduketak errazago hautatzeko.

## IX. KAPITULUA

### JARDUERA EKONOMIKOETARAKO LURZORUAREN ANTOLAMENDUA

#### 33. artikulua.– Antolamendu-irizpide orokorrak.

1.- Donostiako Eremu Funtzionalaren Lurralde Plan Partzialaren irizpide orokor gisa ezartzen da, jarduera ekonomikoetarako lurzoruaren lurralde-antolamendurako, egungo eredu finkatzea. Jarduera ekonomikoetarako lurzoruak eremu funtzionaleko azpieskualdeetako hainbat enklaberaren artean zona bakoitzeko biztanleriaren pisuaren eta bertan lehendik dauden hiri-ehunen arabera modu nabarmen orekatuan banatuta egotea du bereizgarri eredu horrek.

Eredu horren bidez erabileren arteko erlazio orekatua optimizatzen da azpieskualde hiritar bakoitzaren barruan, indarrean dagoen Jarduera Ekonomikoetarako Lurzorua Sortzeko eta Saltoki Handiak Antolatzeko Lurralde Arloko Planaren irizpideekin bat etorritik. Modu horretan, Donostialdeko hirigintza-antolakuntza orokorrak bereizgarri dituen tokiko autonomia eta deszentralizazio funtzionala sustatzen dira eta, era berean, biztanleria aktiboaren bizilekutik lanerako eguneroko joan-etorriak egiteko premiak gutxitzea ahalbidetzen da.

2.- Gaur egun, Donostiako eremu funtzionalean desoreka txiki batzuk hautematen dira hiri multzo bakoitzean dauden bigarren sektoreko enpleguaren eta hirugarren sektoreko enpleguaren proportzioen artean. Donostia erdialdean hirugarren sektoreko jarduera berrien eta enpleguaren eskaintza kontzentratzeko joera dago. Etorkizunean joera hori arintzea komeni da eta horretarako jarduera berrien eta hirugarren sektoreko zerbitzuen poloak dinamizatu beharko dira gainerako hiri multzoetan, eta eremu funtzionalaren erdigunean kokatutako jarduera ekonomiko konbentzionaleko zonak sistematikoki transformatzea eta bizitegiko eta/edo hirugarren sektoreko eraikuntzarako erabiltzea saihestu beharko da.

3.- Lurralde Plan Partzialaren plangintza-proposamenak helburu bikoitzarekin planteatzen dira, hots, epe ertain eta luzerako eskaintza estrategiko baten plangintza aurreikusteko eta eremu funtzionaleko azpieskualde guztietan epe laburrean erabilgarri egongo diren lurzoru libre planifikatuko erreserbak bermatzeko.

4.- Ase ez diren eskarietarako bat garraioaren, logistikaren eta salgai-banaketaren sektorerako zerbitzu-plataformei dagokiena da. Sektore hori, gainera, eremu funtzionalaren etorkizunerako interes garbia duen jarduera-alorra da, estrategikoki kokatuta baitago Europaren eta penintsularen arteko komunikabideen korridorean.

5.- Ase beharreko beste eskari batzuk hirugarren sektoreak eta teknologia berriek sortzen dituztenak dira. Gure kasuan, eskari horien formatu tipologikoak berraztertu egin beharko dira, eta lurraldeko puntu estrategikoetan kokatuta eta garraio publikoarekin eta komunikabide-sare nagusiekin zuzenean konektatuta dauden dentsitate handiko ezarpeneko konponbideetara jo lehentasunez. Eskari horiei erantzuteko, dentsitate txikiko parkeen tipologia inportatuak alde batera uztea proposatzen da, ez direlako egokiak gure

lurralderako, espazio-kontsumo handia baitute, ez baitute loturarik oinarrizko komunikabide-sareekin eta nahi ez den lehia eragiten baitiete plataforma logistikoei. Lurzoru-urritasunari erantzuteko altuerako industria-eraikuntzaren lehen belaunaldiko tradizio bikaina dugun lurralde honetan, jarduera ekonomiko aurreratu berriak hartzeko dentsitate handiko tipologiako hirigintza-ezarpenak sortzea sekulako abagune estrategikoa da.

### **34. artikulua.– Antolamendu orokorreko xedapenak.**

- 1.- Lurralde Arloko Planaren parametroei jarraiki, Andoain, Astigarraga, Donostia, Errearteria, Hernani, Irun, Lasarte-Oria, Lezo, Oiartzun, Pasaia, Urnieta eta Usurbilgo udalerriak eta Hondarribiko udal-barrutiaren hego-mendebaldea «lehentasunezko intereseko udalerrien» kategorian sailkatzen dira jarduera ekonomikoetarako lurzorua antolatzeari eta garatzeari dagokionez. Hondarribiko udal-barrutiaren gainerakoa, Jaizubia errekararen iparraldean kokatua, «hazkunde neurritsuko udalerrien» kategorian sailkatzen da.
- 2.- Eremu funtzionalaren barruan, Oarsoaldeko eskualdea ekonomia suspertzeko eta industria-birmoldaketa jasaten duten eremuen hirigintza lehengoratzeko sustapen-eremu gisa konfiguratu da.
- 3.- Lurralde Plan Partzialean proposatutako jarduera ekonomikoetarako lurzoru publikoa sortzeko eragiketa nagusiak hauek dira:
  - a) Pasaiaiko portuaren barruti osoan transformatzea, baina jarduerak deslokalizatzearen ondorioz, Lezo-Gaintxurizketako plataforma logistikoaren eraikuntza posiblea kontuan hartuz, askatutako lurzoruetan hirugarren sektoreko jarduera ekonomiko estrategikoetarako itzulera-kupo garrantzitsua errespetatuta betiere portuaren barnealdean, eta Pasaiaiko Portuko portu-eremuaren antolamendurako plan bereziarekin batera.
  - b) Lezo-Gaintxurizketa korridorean izaera estrategiko eta logistikoko jarduera ekonomikoetarako polo bat garatzea (61 ha).
  - c) Enpresentzako zerbitzuetarako eta jarduera aurreratu etarako parke bat sortzea Zubietan inguruan (Irun-Hondarribia).
  - d) Eskuzaitzetako poligonoa jarduera ekonomikoetarako eta plataforma logistikoetarako sustapen publikoko eta izaera estrategikoko udalerriaz gaindiko esparru berri gisa garatzea (70 ha), eta, osagarri gisa, Lasarten industrialde bat garatzea Michelin enpresaren instalazioaren zati bat birmoldatzeko eragiketa gisa (2 ha).
  - e) Hernanin, Galarreta aldea jarduera ekonomikoetarako eta hirugarren sektoreko jardueretarako izaera estrategikoko eskualde-esparru berri gisa garatzea (30 ha).
- 4.- Eremu funtzionalean merkataritza-ekipamendu handiak arautzeari dagokionez, eremu funtzionaleko udalerrri guztiak «zentraltasun handieneko udalerrri» gisa (A kategoria)

sailkatzen dira, jarduera ekonomikoetarako lurzorua sortzeko eta saltoki handiak antolatzeko Lurralde Plan Sektorialaren arabera.

### **35. artikulua.– Udalaren hiri-plangintzan antolatu beharreko jarduera ekonomikoetarako lurzorua kuantifikatzea.**

- 1.- Eremu funtzional osoan planifikatu beharreko jarduera ekonomikoetarako lurzoru berriaren azalera globala dimentsionatzeko, lurzoru erabilgarriaren etorkizuneko eskariaren ratioen zenbatespena hartzen da abiapuntutzat, eremu funtzionalean azkenaldi honetan (2003-2014) okupatutako jarduera ekonomikoetarako lurzoruaren batez besteko hazkunde-eritmoa estrapolatuta (13 ha/urte gutxi gorabehera). Horren arabera egiazta daiteke Lurralde Plan Partzialaren hurrengo 16 urteetako horizonterako (2016-2031) udal-plangintzan gaur egun planifikatutako erreserbak behar adinakoak direla, nahiz eta harrotze-faktore oparoa aplikatu eskaintzaren zurruntasuna zuzentzeko faktore gisa. Are gehiago, ekonomia mantsotu den duela gutxiko zikloan sortutako instalazio hutsak berreskuratzeko aukera ere kontuan hartzen badugu.

Lurralde Plan Partzialesan planteatu diren jarduera ekonomikora bideratutako lurzoru-azalera berriak sortzeko proposamenek helburu dute Lezo-Gaintxurizketako nodo logistiko berria (61 ha) sortzeko proposamenari harrera egiteko asmoari eta, nolnahi ere, Lurralde Plan Partzialaren denbora-horizontean eremu funtzionaleko udalerrri bakoitzaren barne-plangintza etorkizunean berraztertze eta berrantolatze nolabaiteko ahalmena ahalbidetzeko komenigarritasunari erantzutea.

- 2.. Jarduera ekonomikoetarako lurzoruaren azalera osoaren dimentsionamendu globala, hiri-plangintza jaso beharrekoa, hiri multzoen arabera banakatuta, hau da:

- Txingudi	255/275 ha
- Oarsoaldea	420/470 ha
- Donostia erdialdea eta Urumea	440/480 ha
- Oria Beherea, Andoain eta Urnieta	420/440 ha
-----	
Donostiako eremu funtzionala, guztira	1.535/1.665 ha

- 3.- Lurralde Plan Partzialaren memorian informazio-taula bat jasotzen da. Bertan, globalki, azpieskualdeka, hiri multzoka eta udalerrrika banakatuta islatzen dira lurzoru planifikatuaren, okupatuaren eta librearen egungo egoera eta udal-plangintza berraztertze dokumentuetan aurreikusten diren lurzorua sustatzeko eragiketa berriak.

### **36. artikulua.– Hiri multzoka partikularizatutako antolamendu-arauak.**

- 1.- Jarduera ekonomikoetarako lurzorua orokorki antolatze eta dimentsionatzeko irizpide orokorrekin batera, eremu funtzionaleko hiri multzo bakoitzerako partikularizatutako hainbat antolamendu-jarraibide espezifiko ezartzen dira, mugikortasun-eredua, espazio-erabilgarritasunak eta zona bakoitzaren hirigintza-ezaugarriak eta ezaugarri sozioekonomikoak uztartzearen ondorio diren abagune estrategikoetan oinarri hartuz planteatuak.

Ondoren zehaztaper horiek xehatuko dira eta, gainera, hiri multzo eta udalerrri bakoitzean, taularekin bat etorriz, planifikatu beharreko jardura ekonomikoetarako lurzoru dimentsionatzeko parametroak, hiri multzo bakoitzean jardun jakin batzuei lehentasuna emateko ezartzen diren jarraibideak eta izaera estrategikoko eragiketen proposamen espezifiko nagusiak ere zehaztuko dira. Haiek, orobat, jardura ekonomikoetarako lurzoruaren antolamenduari buruzko 6. planoan daude jasota:

#### 2.- Txingudi (Hondarribia eta Irun):

- a) Irun-Hondarribian Lurralde Plan Partzialaren horizontean jardura ekonomiko eta logistikoetarako lurzoru planifikatzeko aurreikuspenak 255/275 ha-ra doitzea (gaur egun 217 ha lurzoru daude okupatuta eta planifikatutako azalera libre 61 ha-koa da). Planifikatutako lurzoruaren inbentarioan, indarreko plangintzat hartu dira Hondarribiko plangintza orokorraren berrikuspeneko bideratzen ari diren dokumentuak.
- b) Enpresentzako zerbitzuetarako eta jardura aurreratuetarako parke bat sortzeko proposamena Zubietan inguruan (Irun-Hondarribia) (31 ha).
- c) Jardura ekonomikoetarako eremuak lehentasunez ezartzea Irungo udalerrriaren mendebaldeko muturrean (32 ha).
- d) Urune (5,5 ha) eta Epele (5,5 ha) esparruetan, lehen sektoreko jarduerarekin edo natura-ingurunea babestearekin lotutako erabilerak sartzeko proposamena.

#### 3.- Oarsoaldea (Lezo, Oiartzun, Errenteria, Pasaia eta Donostia ekialdea):

- a) Oarsoaldean planaren horizontean planifikatu beharreko jardura ekonomiko eta logistikoetarako lurzoruaren dimentsionamendua 420/470 ha arte handitzea, etorkizunean kanpoaldeko dartsenan jardura ekonomikorako espazioak sortzeko aukera kontuan hartzen dela ere.
- b) Lezo-Gaintxurizketa korridorean, Lezon eta Oiartzunen plataforma logistiko berrien eta izaera estrategikoko jardura ekonomikoetarako eremuen polo bat sortzeko proposamena (61 ha).
- c) Landarro poligono berria garatzeko (15 ha) proposamena.
- d) Jardura ekonomikoetarako Urkiolako (9 ha) sektorea lurzoru urbanizagarri gisa kalifikazioaren deslokalizazio-proposamena, AHTeko bidearen eta baldintza topografiko desegokiengatik erasotua.

#### 4.- Donostia erdialdea eta Urumea (Donostia erdialdea, Astigarraga eta Hernani):

- a) 440/480 ha-ko dimentsionamendu globalaren proposamena Donostia erdialdean, Astigarragan eta Hernanin planaren horizontean planifikatutako jardura ekonomikoetarako lurzoru guztirako. Kopuru hori bat dator oro har hurrenez hurrengo udal-plangintzen aurreikuspenen baturarekin.

- b) Hernanin, Galarreta aldean, jarduera ekonomikoetarako eta hirugarren sektoreko jardueretarako lurzoria sortzeko eragiketa eskualde-eskalako eragiketa estrategikotzat jotzea (30 ha).
- c) Antondegi (22 ha), Urbarburu Zabalpena (7 ha lurzoru libre) eta Zarkumendegi Zabalpena (13 ha lurzoru libre) industria-poligonoak garatzearen hirigintza-egokitasuna berraztertzea, etorkizunean ordezko aukera bateratua planteatzeko edo etorkizuneko lurzoru-eskarien zati bat Eskuzaitzeta poligonora eskualdatzeko aukeraren aurrean.

5.- Oria Beherea (Usurbil, Lasarte-Oria eta Donostiako Zubieta auzoa):

- a) 250/260 ha-ko dimentsionamendu globalaren proposamena Usurbilen, Lasarte-Orian eta Donostian (Zubieta eta Rekalde) planaren horizontean planifikatutako jarduera ekonomikoetarako lurzoru guztirako. Kopuru hori hurrenez hurrengo udal-plangintzen aurreikuspenen batukariarekin bat badator ere, gainditu egiten ditu hiri multzoko premia endogenoak.
- b) Eskuzaitzetako eragiketa izaera estrategikoko eta udalaz gaindiko eskalako eskuhartze publikotzat jotzea, non eskualdeko kudeaketa proposatzen baita jarduera ekonomikoetarako lurralde guztirako nahikoa den lurzoru berria sustatzeko eta garatzeko. Lurzoruen titulartasun elkarrean eta kudeaketa urbanistikoko organoan, Eusko Jaurlaritza, Gipuzkoako Foru Aldundia eta Donostiako Udalaz gain, Lasarte-Oriako eta Usurbilgo udalak eranstea proposatzen da, poligono berritik gertuen dauden lurraldeak direlako.
- c) Michelin enpresaren instalazioaren zati bat industrialde moduan birmoldatzea ere lehentasunezko jardun publikotzat jotzea.

6.- Andoain eta Urnieta:

- a) 100/105 ha-ko dimentsionamendu globalaren proposamena Andoainen planaren horizontean planifikatutako jarduera ekonomikoetarako lurzoru guztirako. Kopuru hori bat dator oro har udal-plangintza berraztertzean aintzat hartu diren aurreikuspenekin.
- b) 70/75 ha-ko dimentsionamendu globalaren proposamena Urnietan planaren horizontean planifikatutako jarduera ekonomikoetarako lurzoru guztirako. Kopuru hori bat dator oro har udal-plangintza berraztertzean aintzat hartu diren aurreikuspenekin.

## X. KAPITULUA

### EKIPAMENDU KOMUNITARIO OROKORRA

#### 37. artikulua.– Ekipamendu komunitario orokorra.

Zuzkidura-ekipamendu orokorreko elementu eta espaziotzat definitzen dira egun dauden ondorengo ekipamendu finkatuak, sustatzen ari diren proiektuak eta Lurralde Plan Partzialaren proposamen espezifiko gisa planteatutako elementu berriak:

- a) Zuzkidura eta Jolas Erabilerako Espazio Libre Handiak eta Ibilbide Bigunen Oinarrizko Sarea.

1.- Hiriarteko eta hiri inguruko parkeak.

Lau Haizetako hiriarteko landa-parkea konfiguratuta dago. 10.2 eta 10.3 artikuluetan planteatutako gainerako hiriarteko eta hiri inguruko landa-parkeak sortzea (ikus 2. eta 5. planoak).

2. Hondartzak.

3. Oinezko eta bizikleten ibilbideen oinarrizko sarea, barne direla itsasertzeko «Talai Bidea» bideak eta 3. eta 3.1 planoetan adierazitako ibilbide guztiak.

4. Santiago bidea

Ekainaren 25eko 4/2015 Dekretuan (Santiago bidea kultura-ondasuntzat kalifikatzen duena, multzo monumentalaren kategoriarekin) katalogatutako bi bideak finkatzea.

- b) Izaera Orokorreko Zuzkidura Ekipamendu Nagusiak.

1.- Egun dauden eta/edo Programatu diren Ekipamendua:

- a) Donostiako ospitale-instalazioak.
- b) Bidasoa Eskualdeko Ospitalea (Irun).
- c) Ibaetako Unibertsitate Campusa.
- d) Kursaal Kongresu Jauregia.
- e) Ficoba Erakustazoka.
- f) Tabakalera Kultura Zentro Berria.
- g) Anoetako Kirol Instalazioak.
- h) Aquariuma.
- i) San Telmo Museoa.
- j) Lasarteko Hipodromoa.
- k) Hondarribiko Kirol Dartsena.
- l) Pasaiaiko Kirol Dartsena.

- m) Donostiako Kirol Dartsena.
- n) Gipuzkoako espetxe berria.
- o) Chillida-Leku.
- p) Plaiaundi Interpretazio Zentroa.

## 2.- Proposatutako ekipamendu orokor berriak:

- a) Zuzkidura-ekipamendu eta hirugarren sektoreko ekipamendu orokor berriak Pasaiaiko Portuko portu-eremuaren ordena-ziorako plan bereziarekin bat.
- b) Zuzkidura- eta unibertsitate-ekipamendu eta hirugarren sektoreko ekipamendu orokor berriak Irungo trenbide gune berrian.
- c) Ondartxoko ontziolako kultural ekipamendu berria (Albaola Proiektua).
- d) Etorkizunean ekipamendu orokor periferikoak ezartzeko zona estrategikoa Aritzetako triangeluan. Lurralde hau aukera aproposa da zerbitzu-elementu berriak ezartzeko edo hiriguneen barnealdetik deslokalizatutako ekipamendu bereziak hartzeko, baldin eta errepide-nagusiarekin zuzenean konektatuta egotea baloratzen bada.
- e) Zubietako kirolgune berria (Irun-Hondarribia).

## XI. KAPITULUA GENERO-IKUSPEGIA ETA EGUNEROKO BIZITZA

### 38. artikulua.– Genero-ikuspegia eta eguneroko bizitza.

1.- Lurralde-antolamenduak guztientzako interesa duten gaiak jorratzen ditu eta kontuan izan behar ditu adin, klase sozial, talde etniko, gaitasun fisiko eta sexu-joera desberdinetako gizon eta emakumeen aukerak eta helburuak.

2.- Lurralde Plan Partzialaren ikuspegitik, Lurralde Antolamenduak aintzat hartzen dituen alderdi hauetan du eragina generoak:

- a) Garraio eta mugikortasuna.

Ibilgailu-garraioaren azpiegiturek batu egiten dute lurraldea, baina baita bereizi ere. Horrexegatik kontuan izan eta baloratu behar da «eguneroko mugikortasuna edo zaintzarena». Horretarako, lan-tresna berriak behar dira, esate baterako sexuaren arabera berezitateko garraioko inkestak eta bidaia



moten azterketa (katean, poligonalak edo pendulu modukoak, etxetik lanerakoak...). Gainera, oso komenigarria da analisi espazio-tenporalak egitea eta horiek planoetan irudikatzea: distantziak, ordutegiak, erritmoak, maiztasunak, erabilera-dentsitateak...

b) Ekipamendua eta irisgarritasuna.

Ekipamendu komunitarioen irisgarritasuna eta/edo hurbiltasuna funtsezkoa dira haiek diseinatu, planifikatu eta gauzatzeko garaian.

Era berean, funtsezkoa da, hurbiltasun eta irisgarritasun handiagoa lortzeko, zuzkidura-ekipamenduetara garraio publikoko bide- edo trenbide-sare baten bitartez ez ezik, oinez edo bizikletaz iristeko aukera ere izatea.

c) Merkataritza.

Saltoki guneen dimentsionamendu txikiagoaren alde egiten da eta, horrenbestez, eremu funtzionalean ezarri beharreko merkataritza-ekipamenduen zatikatze espazial handiagoaren alde. Horrela, hirugarren sektoreko zuzkidura berri horien banaketa hobea, konplexuagoa eta orekatuagoa ahalbidetuko litzateke lehendik dagoen hiriaren testuinguru orokorrean, eta mesedegarria izango litzateke, gainera, eskaintza erabiltzaileari hurbiltzeko hirigintza-helburua erdiesteko.

d) Segurtasuna.

Udal-plangintza berraztertzeko prozesuek parte-hartze publikoaren laguntzarekin ekingo diote «puntu arriskutsuak» detektatzeari, gero plangintza berrian konponbidea emateko. Horregatik, herritarren parte-hartzeaz, gune arriskutsuen analisia irudikatuko duten planoak edo mapak egin daitezen bultzatzen da, horretarako bidezko neurriak har daitezen errazteko.

e) Parte-hartzea.

Gomendatzen da diagnostikoak kontratatzeko eta/edo plangintzak idazteko baldintza tekniko partikularren agirietan genero-ikuspegia gehitzea, biztanleriaren segmentu guztiak (emakumeak, gizonak, adinekoak eta mendeakoak) bilduko dituen parte-hartzeari buruzko klausula bat izango duena.

f) Etxebizitza.

Etxebizitza-parkea gaur egungo familien egitura eta konposizio berri eta askotarikoetara egokitu behar da, egungo eguneroko bizitzaren premiei erantzun diezaien eta jende guztiaren bizi-kalitatea ahalbidetu dezan.

## g) Trinkotasuna eta erabilera-nahastea.

Bizitegi-eremu hiritarretako batez besteko dentsitatea hektareako 60 etxebizitzakoa da gutxi gorabehera; indize hori oso onargarritzat har daiteke Lurralde ezaugarri topografikoak kontuan hartuta.

Lurraldea multifuntzionaltasun-irizpideekin planifikatzeak, hots, lurralde berean hainbat erabilera konbinatzeak, erraztu egiten du leku eta instalazioetara iristea eta gutxitu egiten du, aldi berean, bidaiatzeko premia. Hortaz, bizi-kalitatea irabazten da azkenean.

## h) Hiri trinkoa eskualde polizentrikoan:

Generoaren ikuspuntutik, trinkoa izan behar du hiriak. Horretarako, ezaugarri hauek izan behar ditu:

1.- Hurbiltasuneko hiria izan behar du, distantzia laburrekoa eta erabilerak nahasita dituena. Garraio-sistema publiko ona izan behar du, behar adina ekipamendu eta saltokiak auzoetan oinez iristeko moduan. Garraio publikoak ekipamendu handietarako sarbidea bermatu behar du, izaeragatik beragatik ezin baitute auzo guztietan egon.

2.- Hiriak ekipamendu klasikoak (osasuna, hezkuntza eta aisia) eskura izatea bermatzeaz gain, ekipamendu berriak izan beharko ditu.

Donostiako eremu funtzionala sistema polinuklear trinkoaren funtzionamendu onaren adibidea da, bere orografiari esker neurri handi batean. Hortaz, garapen trinkoak sustatuko dira.

## i) Lehentasuna inbertsioetan:

Garrantzizkotzat jotzen da udalek beren lehentasunezko inbertsioen zati bat jasotzea hiria hobetzeko, hots, falta diren lekuetan udal-ekipamenduak sortzeko, hiriko auzoetan edo hiriguneetan erabilerak nahasteko eta debekatutako hiriaren planoetan markatutako puntuetan edo ez-segurutzat eta/edo gatazkatsutzat jotzen direnetan konponbideak aurkitzen ahalegintzeko.

## XII. KAPITULUA

### PLANGINTZAK BATERAGARRI EGITEA

#### 39. artikulua.– Plangintzak bateragarri egitea.

Lurralde Plan Partzialean aintzat hartzen den plangintzak bateragarri egitea ez dagokio soilik udalaz gaindiko esparruen gainean plangintza bateratuko prozesuei ekiteko edo mugakide diren plangintzen arteko bat etortzea bermatzeko premiari. Aitzitik, beharbada garrantzia handiagokoa da udalerrri bakoitzeko hazkunde-aurreikuspenen dimentsionamendu globalari eta komunikabide-sareen oinarritzko euskarrien eta uraren ziklo integralarekin edo energia-baliabideen ustiapenarekin lotutako azpiegituren plangintza sektorialeko prozesuei modu integratuan aurre egiteko premia, zeren kasu askotan erabaki sektorialak hartzeak modu erabakigarrian eragin eta baldintzatzen baitu gerora Lurralde antolamendua.

#### 40. artikulua.– Bateragarri egindako plangintza dagokien zehaztapenak, elementuak eta esparruak.

Hainbat zehaztapen orokor, azpiegitura-elementu eta esparru espezifiko ezartzen dira, Lurralde antolamenduaren gaineko eragin estrategikoagatik udalaz gaindiko eta/edo arlo arteko izaerako bateragarri egindako lehentasunezko plangintza dagokienak.

- a) Udal-plangintzaren dimentsionamenduari buruzko zehaztapen orokorrak
  - 1.- Udal-plangintzan antolatu beharreko planifikatutako bizitegi-parkearen hazkundearen dimentsionamenduari buruzko udalerrri eta/edo hiri multzo bakoitzerako jarraibideak.
  - 2.- Udal-plangintzan antolatu beharreko planifikatutako jarduera ekonomikoetarako lurzoruaren dimentsionamendu globalari buruzko udalerrri eta/edo hiri multzo bakoitzerako jarraibideak.
- b) Bateragarri egindako lehentasunezko plangintza dagokien azpiegitura-elementuak:
  - 1.- Txirrindulari eta oinezkoentzako hiriarteko konexioko ibilbideen oinarritzko sarea osatzen duten elementuak.
  - 2.- Hiriarteko bide-sarea osatzen duten elementuak.
  - 3.- Trenbide-sarea osatzen duten elementuak.
  - 4.- Zerbitzu-azpiegituren oinarritzko sareak osatzen dituzten elementuak.

- c) Bateragarri egindako lehentasunezko plangintza dagokien izaera estrategikoko eremuak:
- 1.- Lasarte-Oriako, Zubietako goialdeetako eta Aritzetako izaera estrategikoko eremuak, Urbil-Michelin-Rekalde zona mugakidez gainera (Lasarte-Oria, Donostia eta Usurbil).
  - 2.- Urumeako korridoreko izaera estrategikoko eremua (Donostia, Astigarraga eta Hernani).
  - 3.- Pasaia badiako eta kanpoaldeko dartsenaren proiektuko izaera estrategikoko eremuak (Pasaia, Lezo, Errearteria eta Donostia).
  - 4.- Lezo-Gaintxurizketa korridoreko izaera estrategikoko eremua (Lezo, Oiartzun eta Errearteria).
  - 5.- Txingudiko izaera estrategikoko eremua (Irun eta Hondarribia).
- d) Bateragarri egindako lehentasunezko plangintza dagokien ibai-korridoreak:
- 1.- Oria ibaiaren korridorea (Usurbil, Lasarte-Oria, Donostia eta Andoain).
  - 2.- Urumea ibaiaren korridorea (Donostia, Astigarraga eta Hernani).
  - 3.- Oiartzun ibaiaren korridorea (Errearteria eta Oiartzun).
  - 4.- Bidasoa eta Jaizubia ibaien korridorea (Hondarribia eta Irun).
- e) Bateragarri egindako lehentasunezko plangintza dagokien hiriarteko eta hiri inguruko landa-parkeak:
- 1.- Zabalagako hiriarteko landa-parkea (Usurbil, Donostia, Lasarte-Oria, Hernani eta Urnieta).
  - 2.- Lau Haizetako hiriarteko landa-parkea (Donostia, Astigarraga eta Errearteria).
  - 3.- Usategietako hiriarteko landa-parkea (Lezo, Oiartzun, Hondarribia eta Irun).
  - 4.- Mendizorrotz-Igeldoko hiri inguruko landa-parkea (Usurbil eta Donostia).
  - 5.- Ulia - Pasaia bokaleko hiri inguruko landa-parkea (Donostia eta Pasaia).
  - 6.- Listorreta-Landarbasoko hiri inguruko landa-parkea (Astigarraga, Errearteria eta Donostia).

**41. artikulua.– Plangintzak bateragarri egiteko sistematika.**

- 1.- Lurralde Plan Partzialean, lehen bateragarritze-jarraibidetzat ezartzen da azpiegiturak garatzeko plangintza-dokumentu orokorretan edo proiektu sektorialetan aplikatu behar diren zehaztapen guztiak.
- 2.- Plangintzen bateragarritzea gauzatzeko, aurreikusita dago jarraian adierazten diren gaietan eraginpean dauden udalerrien eta administrazioen parte-hartzea: sektore arteko eta/edo udalaz gaudituko plangintza-prozesu bakoitzaren hasierako kudeaketa, udal-plangintzaren dimentsionamendu globala edota udalaz gauditako eragina berekin dakarten erabakiak hartzea (haren sustapenean nahiz hura erabakitzeko prozesuan).
- 3.- Antolamendu-irizpideei dagokienez ekimenik edo adostasunik ez balego, modu subsidiarioan jardun ahal izango dute, dagokion plangintza-prozesuaren sustatzaile eta ikuskatzaile gisa, Gipuzkoako Foru Aldundiak eta/edo Eusko Jaurlaritzak eta, hala badagokio, Gobernu Zentralak (udalaz gauditako eta/edo lurraldearen gaineko izaera egituratzaileko gai garrantzitsuetan besterik ez, eta udal-autonomia errespetatuz bere hiri-plangintza garatzeko duen eskalarekin lotutako alderdi guztiei dagokienez).
- 4.- Plangintzak bateragarri egiteari buruzko 8. planoan grafikoki islatuta dago bateragarri egindako lehentasunezko plangintza dagokien espazio gisa planteatzen diren esparruen mugaketa. Bateragarri egindako lehentasunezko plangintza dagokien gainerako zehaztapenen eta/edo elementuen identifikazioa Lurralde Plan Partzialaren dokumentazio idatziaren eta grafikoaren multzora igortzen da.

**XIII. KAPITULUA****APLIKATU BEHARREKO LURRALDE-PLAN PARTZIALAREN ARAUAK****42. artikulua.– Hirigintza-antolamendua lurralde-antolamenduari lotzea.**

Hirigintza-antolamenduak Lurralde Plan Partzialean ezarritako zehaztapen lotesleak aplikatu eta horretan jasotako gomendioak bete beharko ditu.

Hirigintzako administrazio eskudunek aldaketa puntualak egiteko edo beren plangintza aztertzeke prozedurei hasiera emango diete, Lurralde Plan Partzialaren zehaztapen lotesleak gehitzeko beharrezkoak izango diren prozedurei, hain zuzen ere.

Hirigintza-administrazio eskudunek Lurralde Plan Partzialean jasotako gomendioak baztertuz gero, espresuki justifikatu beharko dute hartutako erabakia eta horrek dagokion gomendioaren berri ematen duten helburuarekiko bateragarritasuna.

**43. artikulua.– Antolamendu orokorra.**

Plangintza orokorrak udalerrri bakoitzean garatuko ditu proiektatutako lurralde-eredua osatzeko Plan honetan ezartzen diren zehaztapenak. Horretarako, ingurune fisiko eta mugikortasun-ereduen proposamenak bilduko ditu, eta etxebizitzarako eta ekonomia-jardueretarako lurzoruen dimentsionatzea jasoko du, baita ekipamenduen, espazio libreen eta beste azpiegitura batzuen arloan lerrun horrekin ezarritako azpiegiturak ere. Eta hori guztia, herri inguru eta kanpoko parke, ibai-korridore eta estrategia-eremuei dagozkien proposamen guztien definizio osagarriaren kalterik gabe egingo du.

**44. artikulua.– Eremu funtzionaleko eraikuntza isolaturako baldintza orokorrak.**

Euskal Autonomia Erkidegoko Lurralde Antolamenduaren Gidalerroen zehaztapenei jarraituz eta Lurzoru eta Hirigintzaren, ekainaren 30eko, 2/2006 Legean ezarritakoarekin, hiri-eremuez kanpo debekatuta dago etxebizitza isolatu berriak eraikitzea. Haatik, nekazaritzako eta abeltzaintzako baliabideen etxebizitza isolatu berriak eraiki ahal izango dira, egungo legedian jasotzen den bezalaxe.

## **II. ERANSKINA, DONOSTIAKO (DONOSTIALDEA-BIDASOA BEHEREA) LURRALDE-PLAN PARTZIALA BEHIN BETIKO ONARTZEN DUEN UZTZILAREN 27KO 121/2016 DEKRETUARENA**

### **INGURUMEN-INPAKTUAREN BATERAKO EBALUAZIO-PROZEDURA ARAUTZEN DUEN UZTZILAREN 22KO 183/2003 DEKRETUAREN 15. ARTIKULUAN XEDATUTAKOAREKIKO DEKLARAZIOA**

#### 1.- Funtsezko organoaren azken deklarazioa.

Lurralde-plan partzialek Lurralde Antolamenduaren Gidalerroak (LAG) garatzen dituzte azken horiek mugatzen dituzten udalaz gaindiko eremuetan edo esparruetan, eremu edo esparru bakoitzerako gidalerroek ezarritako berariazko irizpideak zehaztuta. Antolamenduko plan eta programen ingurumen-ebaluazioak duen garrantzia Europar Batasunak aintzatetsi zuen. Hala, Europako Parlamentuaren 2001/42EE Zuzentaraua garatu zuen, plan eta programa jakin batzuek ingurumenaren gainean dituzten ondorioak ebaluatzeari buruzkoa.

Plan eta programa horiek ebaluatzea ezinbestekoa da; izan ere, bertan zenbait irizpide estrategiko ezartzen dira proiektu eta azpiegitura handien kokalekua erabakitzeko, haiek udalaz gaindiko zein udalaren barneko guneetan ingurumen-inpaktu handikoak izan daitezkeela uste denean; betiere, ingurumen-inpaktuaren baterako ebaluazio-prozedura arautzen duen uztailaren 22ko 183/2003 Dekretuak xedatutakoaren arabera.

Donostiako Eremu Funtzionalaren Lurralde Plan Partziala (LPP) prozedura horren pean jarri da. Prozedura horretan bildu dira herri-kontsulten zenbait prozesu, lurraldearen osagaien kudeaketan inplikaturako zenbait administrazio-agenteren ekarpenekin, eta toki-erakundeen eta eremu funtzionaleko herritarren parte-hartzearekin ere.

Lurralde-plan partzial honek planteatzen duen lurralde-eredua lau euskarritan dago bermatuta: ingurune fisikoaren antolamendua, azpiegiturak (garraio eta komunikaziokoak eta oinarritzkoak), ekipamenduak eta espazio libreak, eta hiri-kokalekuak. Planak 16 urteko denbora-horizontea du.

Donostiako Eremu Funtzionalaren LPPa lurraldearen diagnostiko objektibo batean oinarritzen ditu bere proposamenak, irizpide analitiko eta teknikoen arabera. Horren helburua da oinarri objektiboaren gainean erabakiak hartzea eta lurraldeko politikak ezartzea eremu funtzionalaren eta udalerrien eskaletan; horretarako, informazio, diagnostiko eta jarduketa-estrategien formulazioen arteko elkarrekiko elikadura finkatuta.

#### 2.- Ingurumen-alderdiak lurralde-ereduan integratzea.

Ingurumena babesteari dagokionez, LPPak oinarritzko bi helburu ezartzen ditu: alde batetik, baliabide naturala garapenerako muga izatea, haren garrantziaren arabera, eta, horrenbestez, lurraldearen eremu jakin batzuetan garapen edo jardun jakin batzuk aurrera ez eramateko

aukera egotea; eta, bestetik, baliabide natural batzuk aktibotzat hartzea. Baliabide horiek zaintzea garapenarekin bateragarri izan daiteke, garapenerako baldintzatzaile bat ekar badezake ere, eta, ondorioz, lurzorua okupazio-ereduari muga jakin batzuk ezar diezazkioke.

LPPan planteatutako ingurune fisikoaren antolamendua bat dator indarrean dauden plan sektorialetan eta LAGetan ezarritako irizpideekin. Izan ere, erabat egokitzen da ingurumenaren arloan indarrean dauden legeriara eta planetara (esate baterako, Garapen Iraunkorrerako Euskal Ingurumen Estrategia eta Ingurumeneko Esparru Programa, eta 1/2014 Legegintzako Dekretuaren bidez onartutako Euskal Autonomia Erkidegoko natura babesten duen Legearen testu bategina), baita legeria horretatik eratortzen diren babes-tresnetara, Natura 2000 Sareari, EAEko korridore ekologikoen sareari, kontserbazio edo babes bereziko zonei, biotopoei edo bestelako espazio babestuei dagokienez.

LPParen beste mota bateko proposamen batzuek (haiek garatzeak eragina izan dezake lurzoru urbanizaezinaren eta dauden intereseko elementuen gainean) LAGetan ezarritako irizpideekin bat datozen jarraibideak biltzen dituzte, lurraldearen interes naturaleko kokaleku eta elementuen gaineko eragin minimoa ziurtatzeko moduan. Gainera, proposamen horiek ezartzeko, ingurumenaren babesa bermatzea oinarri duten irizpideak eta neurriak planteatzen ditu.

### 3.- Helburuak.

Proposatutako lurralde-ereduaren helburu garrantzitsuenak hauek dira:

- a) Lurraldearen baliabide naturalak eta paisaia-balioak babestea, biztanleriak erabili eta gozatzeko ingurumen-ondasuntzat eta eremu funtzionalaren lehen mailako aktiboak bultzatzeko eta kanpora proiektatzeko faktore erantsitatzat.
- b) Landa-ingurunea lehen sektoreko jarduerak garatzeko oinarritzat hartzea; jarduera horiek irautea eta finkatzea interes orokorreko balioz jotzen da, ez bakarrik gizartearen, kulturaren eta ekonomiaren alderditik, baita lurraldeari eusteko eta hura zaintzeko ikuspegitik ere.
- c) Oinarrizko eskema bat finkatzea, komunikazio-ardatzek eta hirigintza-garapen berriek hartuko duten espazioa erreferentzia gisara zedarrizteko.
- d) Lurralde Plan Partzialaren antolamendu-ereduan, eremu funtzionalaren antolamenduaren euskarri izan behar duen oinarrizko azpiegitura-euskarriari buruzko proposamenak ez ezik, aurreikusten diren hirigintza-garapen berrien neurriak ezartzeko eta garapen horiek eremu funtzionalaren lurralde osoan zehar kokatzeko jarraibideak jaso behar dira; garapen horiek garraio publikoko sarearen zerbitzua beharko dute nahitaez.
- e) Eredu bat onartzea, etorkizunean Donostiako eremu funtzionaleko garraio- eta komunikazio-sare orokorra arian-arian eta mailaka kudeatzeko epe luzeko denbora-horizonteaz.



- f) Garraio-sektorearen funtzionamendua optimizatzea, eremu funtzionalak Europako komunikazio- eta garraio-sareen esparruan duen posizio pribilegiatuak sortzen dituen aukera estrategikoak ikusita.
- g) Eremu funtzional osorako bidaiarien garraio publikoko sistema sustatzea.
- h) Eremu funtzionalak kanporantz duen “zerbitzu-eskualde” proiektioarekin eskaintzen dituen aukerak indartu eta baloratzea. Donostialdea - Bidasoa Beherea eskualde osorako eskala orokorra duten ekipamendu berriak, hala hirugarren sektorekoak nola zuzkidurakoak, deskontzentratzea proposatzen da, lurralde osoaren gaineko sare gisako banaketaren bitartez.
- i) Donostiako eremu funtzionaleko ekonomia-jarduera eta hirugarren sektoreko jarduera berrien integrazioa sustatzea Baiona-Donostia eurohiriaren esparruan.
- j) Donostialdea-Bidasoa Beherea eremu funtzionaleko espazioa okupatzeko egungo eredua finkatzea; eredu horrek hiriak haranetan eta zeharkako korridoretan kontzentratzea eta kota garaigoetan dagoen haranen tarteko lurraldea begiratzea du bereizgarritzat.
- k) Lurralde Plan Partzialera aldatzea lurzoruaren hirigintza-aprobetxamendurako gutxieneko estandarrak finkatzeko onartutako irizpideak, eta ezabatzea Lurralde Plan Partzialaren antolamendu-eredutik dentsitate baxuko tipologiarekiko garapen berrien aurreikuspena.
- l) Egungo hirigintza-eredua, berezko hiri-nortasunarekiko biztanleguneak elkarren ondoan bizitzean oinarritua, finkatzea eta indartzea. Egungo gune anitzeko egitura gordetzea konurbazio osoaren etorkizuneko antolamendua bermatzeko oinarri gisa, betiere eremu funtzionalaren hazkunde globala hiri multzo bakoitza finkatuz ebatzita.
- m) Egun eremu funtzionaleko hiri multzo bakoitzaren barruan biztanleriaren eta enpleguaren artean dagoen oreka hauskorren egoera zaintzea eta optimizatzea.

Hortaz, helburu horien arabera, LPPan jasotako proposamenak, ikuspegi orokor batetik, errespetuzkoak eta bateragarriak dira ingurumena babesteko politikekin; izan ere:

- Eremu Funtzionalean aipatzen diren proposamen guztiak Lurralde Antolamenduaren Gidalerroekin, eta indarrean dauden plan eta legeria sektorialekin bat etorritik garatzen dira.
- Garapen Iraunkorrerako Euskal Ingurumen Estrategian eta indarrean den Ingurumeneko Esparru Programan jasotako ingurumen-irizpideak betetzen dira.

- Eremu funtzionalean dauden intereseko espazio eta elementu naturalistikoaren benetako babesa ziurtatzen da.
- Babestutako naturaguneetatik kanpo dauden eremuen koherentzia eta konektagarritasuna babesten dira, biodibertsitatearen galera saihesteko.
- Landa-habitata finkatzeko lurzoruen lurralde-garrantzia areagotzen da eta «nekazaritza eta abeltzaintzako eremu estrategikoen» figura sortzen da.
- Lurpeko edo azaleko ur kontinentalak, ohantzeak, ibilguak, trantsizioko urbazterrak eta ur-ertzak eta kostaldekoak babesteko neurri egokiak ezartzen dira, lehentasunez haien baliabide hidrikoa eta ingurunea babesteko, zaintzeko eta leheneratzeko, eta sortuko diren eskari hidrikoak eta baliabide teknikoak eta finantzarioak aurreikusteko, ingurumenaren aldetik modu onargarrian onartuko direla bermatzeko.
- Birgertatze-aldiko 100 urteko ur-goraldien aurrean arriskurik ez dagoen eremuetan lurzoru ez-hiritarraren okupazioa saihesten da.
- Dagoeneko artifizializatutako lurzoruak erabiltzeari lehentasuna ematen zaio.
- Motorrik gabeko mugikortasuna eta garraio bide publiko eta kolektiboak sustatzen dira.
- Energia-aurrezte eta -eraginkortasuna bultzatzen da, energia berriztagarrien erabilera sustatzeaz gain.

#### 4.- Proposamena.

Planteatutako lurraldea antolatzeko ereduaren oinarritzko egitura osatzen duten Lurralde Plan Partzialaren zehaztapenak hauek dira:

- a) Ingurune fisikoaren lurralde-antolamendu orokorrerako oinarritzko zonifikazioaren proposamena, bereizirik:
  - 1.- Babes naturalistiko eta/edo basogintzako babes berezia duen lurzorua.
  - 2.- Landa-habitata eta/edo hiri inguruko esparru berdeak finkatzeko babes bereziko lurzorua.
  - 3.- Ibai-korridoreak.
  - 4.- Hiri inguruko landa-lurzorua.

- b) Ingurune fisikoaren lurralde-antolamendu orokorrerako antolamendu osagarri eta gainjarriaren proposamenak:
- 1.- Hiriarteko landa-parkeak.
  - 2.- Hiri inguruko landa-parkeak.
  - 3.- Nekazaritza eta abeltzaintzako eremu estrategikoak.
- c) Mugikortasun-ereduaren eskema orokorra finkatzea eta hainbat proposamen espezifiko adieraztea gai hauen inguruan: txirrindulari eta oinezkoentzako oinarriko hiriarteko sarearen etorkizuneko konfigurazioa, errepide-sare nagusia, trenbide-sareak –Trenbide Azpiegituren Administrazioa (ADIF), Euskal Trenbide Sarea (ETS) eta Abiadura Handiko Trena (AHT)– eta dagozkien geltokiak eta intermodalitate-elementuak, eta portu- eta aireportu-azpiegiturak.
- d) Hiri-ingurunearen antolamendu orokorrari buruzko proposamenak, hirigintzarako okupa daitezkeen lurzorua globalki mugatuta eta, horien barruan, hainbat esparru espezifiko definituta:
- 1.- Hiriko eta hiri inguruko multzoak.
  - 2.- Hiri multzoak.
  - 3.- Hiri inguruko landa-lurzorua.
  - 4.- Ibai-korridore hiritarrak.
  - 5.- Lurralde Plan Partzialean izaera estrategikoko eremu gisa definitutako esparruak.
- e) Udal-plangintzan planifikatu beharreko bizitegi-parkea eta jarduera ekonomikoetarako lurzorua antolatzen eta dimentsionatzeko jarraibide orokorrak adieraztea.
- f) Izaera estrategikoko eremutzat definitutako esparruak proposatzea.
- g) Uraren ziklo integralari, zerbitzu-azpiegituri eta ekipamendu komunitario orokorrari buruzko proposamen orokorrak adieraztea.
- h) Bateragarri egindako lehentasunezko plangintza izan behar duten esparru eta elementu nagusiak finkatzea.
- i) Genero-ikuspegiari eta eguneroko bizitzari buruzko proposamenak.

#### 5.- Izapidea eta parte-hartzea.

Ingurumen-inpaktuaren baterako ebaluazio-prozedura arautzen duen uztailaren 22ko 183/2003 Dekretuaren eta plan eta programa jakin batzuek ingurumenaren gainean dituzten ondorioak ebaluatzeari buruzko apirilaren 28ko 9/2006 Legearen arabera, LPPa ingurumen-inpaktuaren baterako ebaluazio-prozeduraren mende jarri da. Prozesu horretan bildu da herri-kontsulten prozesua, lurraldearen osagaien kudeaketan inplikaturako zenbait administrazio-agenteren ekarpenekin, eta toki-erakundearen eta eremu funtzionaleko herritarren parte-

hartzearekin ere. Hala, hura bideratzeko prozesu luzean, kronologikoki deskribatzen diren urrats hauek eman dira:

- 1995. urtea: «*Donostia-Beterriko eremu funtzionaleko Lurraldearen Zatiko Planaren aurrerapena*» (lehena) idaztea.
- 1998. urtea: «*Lurraldearen Zatiko Planaren aurrerapenaren hasierako balorazio-txostena*» idaztea.
- 2001. urtea: «*Lurraldearen Zatiko Planaren aurrerapena*» idaztea arauzko izapiderako.
- 2003. urtea: «*Lurraldearen Zatiko Planaren aurrerapena*» jendaurreko informazioaren pean jartzea (39 iradokizun-idazki jaso ziren). Arauzko Ingurumen Inpaktuaren Baterako Ebaluazioari buruzko Azterlana (aurrerantzean, IIBEA) prestatzea, ingurumen-inpaktuaren baterako ebaluazio-prozedura arautzen duen uztailaren 22ko oraintsu onartutako 183/2003 Dekretuaren arabera.
- 2008. urtea: «*Lurraldearen Zatiko Planaren irizpideak, helburuak eta irtenbide orokorrak*» dokumentua prestatzea eta ingurumen-inpaktuaren baterako ebaluazio-prozedura hasteko eskatzea, 2008-02-19an. Ingurumen Sailburuordetzak, 2008ko irailaren 24ko Ebazpenaren bidez, «*Donostiako Eremu Funtzionalaren Lurraldearen Zatiko Planak (Donostialdea-Bidasoa Beherea) ingurumenaren gainean izango duen eraginari buruzko erreferentzia-dokumentua*» formulatu zuen. Horretan oinarrituta, arauzko ingurumen-inpaktuaren baterako ebaluazioari buruzko azterlana idatzi eta, 2008ko abenduaren 12an, dokumentua onartu zuen Eusko Jaurlaritzako Ingurumen eta Lurralde Antolamendu Sailak.
- 2010. urtea: 2010eko urtarrilean, «*Donostiako Eremu Funtzionalaren Lurraldearen Zatiko Planak (Donostialdea-Bidasoa Beherea)*» dokumentua idazten amaitu zen. 2010eko uztailaren 12an, Ingurumen Sailburuordetzak «*Donostiako Eremu Funtzionalako Lurralde Plan Partzialaren ingurumen-eraginari buruzko atariko txostena*» formulatu zuen. 2010eko uztailaren 16an, «*Donostiako (Donostialdea-Bidasoa Beherea) Eremu Funtzionalako Lurraldearen Zatiko Plana*» hasiera batean onartu zen, Eusko Jaurlaritzako Ingurumen, Lurralde Plangintza, Nekazaritza eta Arrantza sailburuaren Aginduaren bitartez.
- 2011. urtea: Onartutako dokumentua jendaurrean jartzeko aldia amaitu zen, eta 90 alegazio-idatzi jaso ziren guztira. «*Alegazioen Edukien Analisia*» dokumentua idatzi zen.
- 2011-2014: «*Donostiako (Donostialdea-Bidasoa Beherea) Eremu Funtzionalako Lurraldearen Zatiko Plana*» dokumentua berriz prestatu zen, berori berriro ere hasierako onarpenaren mende jartzeko. Beste IIBEA bat idatzi zen, Ingurumen Sailburuordetzak 2008an igorritako erreferentzia-dokumentuan eta sailburuordetza horrek 2010ean igorritako ingurumen-inpaktuari buruzko atariko txostenean oinarrituta.

- 2015. urtea: «Donostiako (Donostialdea-Bidasoa Beherea) Eremu Funtzionalako Lurralde Plana Partziala» hasiera batean onartu zen 2015eko martxoaren 27an (martxoaren 30eko EHAAn, apirilaren 10eko GAOn eta maiatzaren 23ko BOEn argitaratu zen). Jendaurreko erakustaldian 58 alegazio jaso ziren. Bilerak udalekin eta herritarrekin, txosten sektorialen analisia, etab.
- 2016. urtea: dokumentu batean, hasierako onarpena lortu zuen dokumentuarekiko sartutako aldaketak jaso ziren. Dokumentua behin-behineko onarpenaren mende jarri zen eta 2016ko martxoaren 3an lortu zuen onarpen hori. 2016ko maiatzaren 6an, Eusko Jaurlaritzako Ingurumen eta Lurralde Politika Saileko Ingurumen Sailburuordetzak ebazpen bat eman zuen. Horren bidez, «Donostiako (Donostialdea-Bidasoa Beherea) Eremu Funtzionalaren Lurralde Plan Partzialaren ingurumen-inpaktuari buruzko behin betiko txostena» formulatu zen.

Behin betiko txosten horretan, ingurumen-alderdiekin zerikusia duten zenbait zehaztapen eta irizpide jasotzen dira, LPParen eta IBEAren behin betiko dokumentuari gehitu zaizkionak. Hain zuzen, honako hauek dira:

- 1.- Balio agrologiko/estrategiko handiko lurzoruak babesteko, antolamendu-figura hauen inguruko LPParen araudia osatzen da: «Hiri inguruko landa-lurzorua» eta «Hiriko eta hiri inguruko multzoak». Gainera, finkatzen da aplikatzekoak izango direla lurralde-plan sektorialetan (Nekazaritza eta Basogintzakoa, Ibaiak eta Errekak Antolatzea, Itsasertzena eta Hezeguneena) ezarritako zehaztapenak. Zehazki, berariaz aipatu behar dira nekazaritza eta abeltzaintzako eta landazabaleko antolamendu-kategoriari dagozkion lurzoruak, Nekazaritza eta Basozaintzako Lurralde Plan Sektorialean (LPS) balio estrategiko handikotzat hartutakoak. Haien mugek, LPS horren arabera, bete-betean diraude indarrean.
- 2.- Natura 2000 Sarearen babesa ziurtatzeko, antolamendu-figura hauen inguruko LPParen araudia osatzen da: «Ibai-korridoreak», «Ibai-korridore hiritarrak» eta «hiriarteko eta hiri inguruko landa-parkeak». Haiei dagokienez, eranstean da beraiek garatuko dituzten antolamendu-plan berezietan nagusitu egingo dela Natura 2000 Sarea garatzeko araudia, baita baliabide naturalak antolatzeko indarrean planak ere. Gainera, ebaluazio egokia eginda, litezkeen eraginak analizatzeko betebeharra dago, Natura Ondareari eta Biodibertsitateari buruzko abenduaren 13ko 42/2007 Legearen 46.4 artikulua arabera.
- 3.- Korridore ekologikoak babesteko, «hiriarteko eta hiri inguruko landa-parkeak» antolamendu-figuraren inguruko LPParen araudia osatzen da, eta ñabartzen da parke horien ingurune fisikoaren oinarritzko zonifikazioa eta antolamendu-figuraren egituraketa koherenteak direla EAEko Korridore Ekologikoen Sareko elementu nagusiekin.
- 4.- Uholdeei aurrea hartzeko, LPParen araudian (15. artikulua, 2. atala), gehitu da planifikatu beharreko zona eremu funtzionalan zehaztuta dauden Uholde Arrisku Garrantzitsuko Eremuetako (UAGE) baten barruan baldin badago, -I. dokumentuaren «Abiapuntuko oinarriak. Azterlanak eta informazio-planoak» 2.10 atala-, onartuta edo prestatzen ari diren uholde-arriskua kudeatzeko planetan ezartzen diren prebentzio-

irizpide eta baldintzatzaile guztiak bete beharko direla, horien arauzko ingurumen-ebaluazioetan barne hartutako neurriei dagozkenez gainera.

- 5.- Energia-aurrezpena eta -eraginkortasuna eta energia berriztagarrien erabilera sustatzeko, IIBEAAn, antzemandako inpaktuekin lotutako neurri babesle eta zuzentzaileei buruzko 7.3.i) atalean, Instituto para la Diversificación y Ahorro de la Energía IDEAren «*Hiri-plangintza energetikoki eraginkorren gida*» aipatzen da.
- 6.- IIBEAAn, planarekiko hautabiderik ez egotea justifikatzeko, adierazi da haren helburua izan dela LAGetan Eremu Funtzionalerako planteatutako lurralde-eredua identifikatu eta garatzea eta, ondorioz, ez dela aurkeztu hautabidezko lurralde-eredu posibleen sortarik. Gainera, agente publiko eta sozial guztiarekin izandako elkarrizketetatik abiatuta jarraitutako prozesu metodologikoaren ondorioz (elkarrizketa horiek hamarkada batetik gora luzatu dira), hainbat gaitan hautabidezko konponbideak alderatu eta kontuan hartu ondoren, hautatze-prozesu baten bitartez, adostasun behar adina arrazoizkoa lortu da bultzatu beharreko lurralde-ereduaren inguruan. Hain zuzen, hori da, «zero aukerarekin» batera, dokumentuak jasotzen duena.
- 7.- IIBEAAn, hautabideen ingurumen-analisirik ezean, adierazi da adierazi da zenbait plangintza eta esku-hartze sektorialen hirigintza- eta azpiegitura-koordinaziorako, lurralde-integraziorako eta espazio- eta ingurumen-balorizaziorako tresnatzat konfiguratu dela plana. Plangintza eta esku-hartze horietako asko nahiko fase finkatueta zeuden jadanik. Horrek, planak izan duen izapidetze luzearekin batera (adostasun publiko eta sozialak parte-hartze zabala izan du planteatutako hautabideetan), justifikatu egiten du IIBEA dokumentuan adierazitako konparaziorik ez egitea.
- 8.- Era berean, korridore ekologikoei dagokienez, IIBEAAn ñabartu da, plana garatzeko dokumentuetan bete beharreko ingurumen-jarraibideei buruzko atalean (7.2 atala), jaso egin beharko dela «EAEko korridore ekologikoen sarea» (2005) dokumentuan ezarritako neurrien osotasuna.
- 9.- IIBEAAn, Plana gainbegiratzeko programarako hautatutako adierazleen erreferentzia-mugak ezarri ez izana justifikatzeko, adierazten da Eusko Jaurlaritzako Ingurumen eta Lurralde Politika Sailak maneiatzen dituen adierazleak direla Euskal Autonomia Erkidegoaren urteroko ingurumen-profila zein den jakiteko. Hala, egokitu egin behar dira adierazle bakoitzerako indarrean dagoen legeriak ezartzen dituen balorazioak; esaterako, horietan eta beraien bilakaera-konparazioan inplikaturako organismo bakoitzak formulatutakoak.

Ingurumen-inpaktuaren baterako ebaluazio-prozesuak berekin ekarri du LPPak, izapidetzean zehar, bere zehaztapenetako batzuk aldatzea, hautabideak atzera botatzea eta garapen batzuk berriz definitzea, eraginak saihesteko edo minimizatzeko, Planean jadanik jasotako ingurumen-irizpideak zabaltzeko neurriak barne direla. Hala, LPPak integratu egin ditu ingurumen-organoak formulatutako ingurumen-txostenetan adierazitako ingurumen-irizpide estrategikoak eta zehaztapena, eta horrela dago esplizituko jasotako IIBEAAn.

Ingurumen-inpaktuaren baterako ebaluazioari buruzko azterlanak LPParen proposamenen garapenean sartutako zenbait babes-neurri ezartzen ditu. Bere baitan hartzen du, besteak beste,

Planak natura-ingurunearen gainean duen eraginari buruzko azterlan xehatuak egiteko beharra. Izan ere, ingurumenean dituen eraginaren jarraipena egiteko, gainbegiratze-programa bat gehitzen du, ingurumen-adierazleen sistema batean oinarritutakoa. Programa hori funtsezko organoak gauzatu behar du eta Plana gainbegiratzeko epeekin koordinatuta egingo da.

## III. ERANSKINA, UZTAILAREN 27KO 121/2016 DEKRETUARENA

DONOSTIAKO EREMU FUNTZIONALAREN (DONOSTIALDEA - BIDASOA BEHEREA) LURRALDE  
PLAN PARTZIALAREN KARTOGRAFIA

(PLANOAK)

[http://www.euskadi.eus/r33-bopvmap/eu?conf=BOPV/capas/D\\_2016\\_PTPDonostialdea/PTPDonostialdea\\_mapak.json&lang=eu](http://www.euskadi.eus/r33-bopvmap/eu?conf=BOPV/capas/D_2016_PTPDonostialdea/PTPDonostialdea_mapak.json&lang=eu)